

EBALUAZIO-GIDA

IRUÑEKO UDALAREN PARTAIDETZA-POLITIKAK
EBALUATZEKO TRESNA PRAKTIKOAK



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

EBALUAZIO-GIDA

IRUÑEKO UDALAREN PARTAIDETZA-POLITIKAK
EBALUATZEKO TRESNA PRAKTIKOAK

Iruñeko Udala
(Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorra)

Erredakzioa:
Aradia Kooperatiba (Delicia Aguado Peláez
eta Patricia Martínez García). www.aradiacooperativa.org

Laguntzailea:
Parte Hartuz ikerketa-taldea (EHU).

Diseinua eta maketazioa:
Encomunicación www.ncencomunicacion.com

Inprimaketa:
Ulzama digital

Lege-gordailua: NA 2693-2018

Baimenduta dago argitalpen hau osorik edo haren zati bat erreproduzitzea, iturria aipatuta.

Dokumentu hau Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetza Alorreko partaidetza eta ahalduntze sozialerako jardunbide egokietan sakontzeko helburuaren barruan sartzen da. Horiek horrela, tresna-saski txiki bat eskaintzeko asmoz sortu da, udalerriko partaidetza-esperientziei buruz hausnartzeko iparrorratz gisa balio dezan.

Edukia ehuntzeko, hainbat eremutan egindako gogoeta batzuetatik abiatu gara. Batetik, Iruñeko Udalak martxan jarritako eraikuntza kolektiboko guneetan, kolaboratorioetan, sortutako harilak erabili genituen; bereziki, Ebaluazioa, Gardentasuna, Trazabilitatea eta Kontuak ematea» gaiari buruzko kolaboratoriokoak. Izan ere, bertan partaidetza-politika publikoa ebaluatzeko logikak birpentsatzen aritu ziren zenbait pertsona, eta gaiari buruzko ekarpen aberasgarriak sortu ziren. Horrez gain, beste hari batzuk agertu ziren Ebaluazio-gida honetako ideiak Plazara! Talde eragileko eta Emakumeen Etxeko prozesuko parte-hartzaileekin erkatu genituenean, ilusioz eta konpromisoaren euren ikuspegi praktikoa erantsi baitzuten. Eta, jakina, Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorreko lantalde teknikoa.

Bestetik, beren denbora herritarren partaidetzari buruz birpentsatzen ematen duen hainbat ikerketa eta ideietatik abiatu gara ehuntzeko. Hau da, zenbait taldek (besteak beste, Partaidetza bidezko Demokraziaren Nazioarteko Behatokia) eta beste ikerketa- edo ekintza-zentro batzuek jardunbide egokiei buruz egindako gidaliburuetatik. Eta, jakina, baita Parte Hartuz (UPV/EHU) taldeko kideek egindako lanetatik ere. Aipamen berezia egin nahi diegu Imanol Telleriari, prozesu honetan guztian alboan izan baitugu, eta Jone Martínez Palaciosi, betiere pribilegioa baita haren galtzorratzak eskueran izatea.

Haril horietako bakoitza haritu duzuen guztioi, mila esker zuen denbora eta ekarpenengatik

IRUÑA
2018



AURKIBIDEA

ESPARRUA	8	FRUITU-ERREMINTAK	55
ERREMINTEN ZUHAITZA	18	HERRITARREN AUTONOMIA	57
LURREKO ERREMINTAK	23	KOGESTIO INSTITUZIONALIZATUAA	58
IRISGARRITASUNA	25	KONPROMISO LOTESLEAE	59
GAIKUNTZA	26	KULTURA POLITIKOA	60
SORMENA	27	AHALDUNTZEA	61
INKLUSIOA	28	ERREKURTSO-SASKIA	63
GARDENTASUNA	30	TEKNIKAK	65
ZEHARKAKOTASUNA	31	DATU ESTATISTIKOAK	66
SUSTRAI-ERREMINTAK	33	DOKUMENTAZIOA AZTERTZEA	66
PROPOSATZEKO GAITASUNA	35	SAREAK AZTERTZEA	66
ABIAPUNTUKO JOKALEKUA	36	BALORAZIO SUBJEKTIBOAK	67
BALIABIDEEN PLANGINTZA	37	ADIERAZLEAK	68
HELBURUAK	38	EBALUATZEKO TXANTILOIAK	81
ENBORREKO ERREMINTAK	41	GLOSARIOA	84
ITZULKETA	43	GEHIAGO JAKITEKO	87
DINAMIZAZIOA	44		
INFORMAZIOA	46		
EZAGUTZA ETA AITORTZA	48		
ADARREKO ERREMINTAK	49		
PARTAIDETZAREN IRISMENA	51		
GIDARITZA	52		
SAREAK	53		

Garrantzitsua izan arren, ebaluazioa da Administrazio Publikoan eta herritarren artean onarpen-maila txikiena duen jardueretako bat, baita partaidetza-politikei dagokien ere. Zenbaitetan, baliabide edo denbora falta direla-eta zokoratzen da bigarren mailara. Beste batzuetan, bertigoa sortzen dutelako haren izaera teknikoak eta gizarte-bizitzaren konplexutasuna baloratzeko ahaleginaren zailtasunak, hain denez aldakorra, dinamikoa eta ustekabekoa. Dena dela, askotan, ohitura faltagatik eta kritikaren beldurrez uzten da bertan behera.

Hala eta guztiz ere, gaiari buruz hausnartzeko aukera ematen diguten tresna batzuk edukirik, elementu horietako asko gaindi daitezke. Horregatik, EBALUAZIO-GIDA: IRUÑEKO UDALAREN PARTAIDETZA-POLITIKAK EBALUATZEKO TRESNA PRAKTIKOAK izeneko dokumentu honek (aurrerantzean, EBALUAZIO-GIDA) erronka horiei heldu nahi die, eta Iruñean eta bertako biztanleengan zer gertatzen ari den aztertzen lagunduko duen tresna bat eskaini. Ebaluazioari buruzko grina partekatze dokumentu bat da, erakargarri eta pedagogikotzat, erraz baina ez sinpletzat, eta Administrazioen gardentasun eta kontu-ematea ziurtatzeko beharrezkotzat ulerturik prozesu hori.

Gainera, udalerrian abian jartzen diren **partaidetza-esperientziei** buruzko informazioa eta ezagutza sortzeko baliabide bat da ebaluazioa. Zein baliagarriak diren nabarmendu, eta arian-arian agertzen diren erronkei buruz ikasketak sortu ahal izateko. Eta, hala, kalitate demokratikoaren eta **justizia sozialaren** ildotik herritarren partaidetzara eramango gaituzten bideak hobetzeko.

FEMINISMOA, INTERSEKZIONALITATEA ETA KOMUNITATE-ZAINTZAK ESPARRU GISA

Tresnak garatu aurretik, funtsezkoa iruditzen zaigu EBALUAZIO-GIDA honetan abiaburu ditugun esparru-jarrerak agerira ekartzea. Lehenik eta behin, feminismoak dokumentu osoan izan du eragina. Gure ustez, genero-ikuspegia ez da beste irizpide bat soilik; aldiz, zeharkakoa izan eta multzo osoa eraldatu behar du, kontzeptuen definiziotik hasirik.

Eraginkortasuna, berrikuntza eta lidergoa kontzeptuek, esaterako, gainditu nahi izan dugun kutsu **androzentrikoa** dute. Eta nahi izan dugula azpimarratu nahi dugu; izan ere, moldatu gaituen **dominazio-matrizeak** baldintzatzen ditu gure sentitzeko, arrazoitze eta egiteko moduak, Patricia Hill Collins feminista beltzak adierazi zuen bezala. Zeharkatzen gaituzten **identitate-ardatzek** definitzen dute matrize hori: besteak beste, gizarte-mailak, adinak, generoak, jatorriak eta arrazak.

Alderdi horretan, **intersekzionalitateak** gure gizarteari buruz hausnartzen laguntzen digu, eta kalteberatasun-egoeren gaineko begirada kritikoaz hornitzen gaitu. Adibidez, berdin biziko al dute hiria lan egonkorra duen adin ertaineko emakume seme-alabadunak eta lan prekarioa duenak? Aldirietan bizi den etorkin batek eta Iruña erdialdean bizi den bertako norbaitek? Desgaitasunik ez duen gazte batek eta mugikortasun-arazoak dituen adineko emakume batek? Hau da, intersekzionalitateari esker, bizipenak konplexuak eta askotarikoak direla planteatu dezakegu, identitate horiek une eta testuinguru jakin batean elkarri nola eragiten dioten harturik kontuan.

Oso garrantzitsua da hori gogoan izatea; izan ere, herritarren partaidetza ez da dominaziorik gabea, gizartea eraldatzeko pentsatu bada ere. Horregatik, partaidetza-esperientziak garatzen edo ebaluatzen ditugunean, edo haietara elkartzen garenean, aipatutako ardatzei eta haien gurutzaguneei buruz pentsatu behar dugu. Beraz, gizarte-aniztasunarekiko errespetuz lan egiteko, ezinbestekoa da (eragile politiko, teknikari nahiz herritar gisa) zeharkatzen gaituzten pribilegio eta opresioen jakitun izatea.

Gainera, **Tokiko eta komunitateko giza garapenarekiko** konpromisoa egin da EBALUAZIO-GIDA hau, eta bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako ikuspegiaren alde egiten du garapen mota horrek. Hau da, ekintza politikoaren erdigunean jarri nahi ditu **zainketak**, giza harremanak gizartearen ongizaterako funtsezkoak direla ulerturik. Ildo horretan, partaidetza funtsezko tresna da elkar ezagutzeko eta konponbideak elkarrekin (eta aniztasunetik) bilatzean elkar topo egiteko.

Azkenik, gaineratu nahiko genuke testuinguru jakin bakoitzera moldatu beharraz hitz egiten digutela esparru ideologiko horiek. Hau da, kontua ez da formula itxi eta unibertsalak sortzea; aitzitik, printzipioak une/eremu jakin bakoitzaren arabera eratu behar dira. Hari horri tiraka, partaidetza ibilbide bat dela ateratzen da; tresna bat, eta ongi erabiltzeko, prozesuan egiten diren urratsetan eta sortzen diren ikasketetan bermatu behar da. Baina, zein dira higiarazten gaituzten printzipio horiek?

ZER LORTU NAHI DUGU PARTAIDETZA-POLITIKEKIN?

Dokumentu honen izenburua EBALUAZIO-GIDA da. Baina, zerbait ebaluatu ahal izateko, hitz bat erabiltzean hartatik zer espero dugun jakin behar dugu lehenik eta behin. Berezik, *herritarren partaidetza* terminoaren erabilera etengabearen ondorioz beharbada hitzaren jatorria eta asmoa desitxuratu denean. Orduan, zertaz ari gara partaidetza-politikez mintzo garenean? Edo, are hobeto, zer lortu nahi dugu kontzeptu hori erabiltzen dugunean?

Parte Hartuz UPV/EHUko ikertalde kontsolidatuan diotenez, partaidetzak gizartea eraldatzeko ahalmena izan dezan, ezinbestekoa da honako logika hauetarantz abiatzea:

- **Kontsultatik kogestiora.** Eboluzio horrek esan nahi du apurka-apurka erabakiak hartzeko eremueta sartuko direla herritarrek, instituzioekin partekatutako arte.
- **Herritarrek objektutzat hartzetik subjektu izatera.** Apurka-apurka eremueta sartu ahala, alor politikoko eragile aktibotzat ulertuko dira herritarrek, eta ez eragile politikoei eta teknikariak hartzen dituzten erabakien hartzaile pasibotzat.
- **Sektorialetik integralera.** Interes partikularretatik kezka orokor eta zeharkakoetara mugitzen gara. Bestela esanda, «eta nireari buruz, zer?» galdetzetik, «eta geureari buruz, zer?» galdetzerako igarotzea da kontua.
- **Sinbolikotik egiazko eta eragingarrira.** Hau da, ez gara hitz on hutsetan geratu behar, eta praktikan pertsonen bizi-kalitatea hobetuko duten neurriak jarri behar dira abian.
- **«Une» noziotik prozesura.** Garrantzitsua da partaidetza ez dadila denbora eta eremu isolatueta gauzatu, eta, aitzitik, koordinazioa, koherentzia eta antolamendua bila dezala.

ZER ESAN NAHI DU HORIZONTE HORIEK BILATZEAK?

Arestian aipatutakoak kontuan izanik, banako eta taldeko jarrera eta jardunbideak sortzeko bitartekotzat hartzen da herritarren partaidetza, jokabide horiek ekintza politikoa ulertzeko beste molde batzuetara eraman gaitzaten. Horretarako, ezaugarri hauetatik abiatuta pentsatu dira partaidetza-esperientziak:

- **Taldeko arazoak konpontzeko modu berriak sortzea,** hasi informazioa lortzen denetik, eta komunitateko bizitza hobetzeko hautabideak pentsatu eta martxan jarri arte. Horretarako, ezinbestekoa da lehendik zeuden jakintzen aniztasuna onartzea eta legitimatzea, eta ez hartzea ezagutza zientifiko eta teknikoak soilik baliozkotzat.
- **Berdintasunarekiko konpromisoa,** askotariko presentziak eta ahotsak txertatzea bilatzen duelako;

bereziki, kalteberatasun-egoera handienean dauden taldeena. Partaidetzak erabakiak hartzean kanpoan utzi ohi diren sektoreak barneratzen saiatu behar du, eta arazoak zehaztean eta aukerak proposatzean ez daitezela jarrera hegemonikoak soilik ikusarazi.

- **Partaidetza-praktika ororen pedagogia sozializatzailea.** Partaidetzak errespetua eta taldea ulertzen ikastea eragin behar du. Elkarguneak antolatu behar dira, biztanleriaren zenbait segmentu, nork bere interesak izanik, elkar aurkitu, ezagutu eta erantzun kolektiboak sortzeko. Azken batean, guztion onura bilatzera bideratuko diren esperientziak garatu behar dira.
- **Elkarriketa eta entzute aktiboa sustatzea.** Guztion onura eta erantzun kolektiboak lortzeko, errespetuan eta berdintasunean oinarrituz eraikitako eremuak antolatu behar dira. Hala eta guztiz ere, Marianella Sclavik (2010) adierazi duenez, oraindik ere eztabaidaren, argudioaren eta norgehiagokaren logikaren pean gauzatzen dira esperientzia ugari. Edo, bestela izanda, asko konbentzitu nahi eta gutxi entzuten duen zero baturako eredu bat da, eta aldi bereko bakarriketen segida bihurtzen da ia-ia. Eredu bertikal eta hierarkiko horren orde, aukera horizontalagoak sendotu nahi dira. Alderdi horretan, apustu interesgarria egiten dute Migrazioei, Kulturartekotasunari eta Herritarrei buruzko lkerketen Diziplinarteko Taldeak (GIEMIC) eta Mosaico Canaria elkarteak; izan ere, **ikuspegi dialogiko eraldatzailea** aplikatzen diote gizarte arloko partaidetzari. Ikuspuntu horren bitartez tresna metodologiko sorta bat sortu da, zainketetan, entzute aktiboan, lankidetzan, ahalduztzean eta gainerako parte-hartzaileak aintzat hartzean oinarritutako elkarriketa sustatzeko.

NOREKIN PARTE HARTZEN DUGU HORIZONTE DESIRAGARRIETARANTZ ABIATZEKO?

Partaidetza-bide horretan alboan nor izan nahi dugun planteatzea funtsezkoa da EBALUAZIO-GIDA honek zer ebaluatu nahi duen argitzeko. Izenburuan partaidetza-politikei aipamena egiteak aditzera ematen duen bezala, instituzioak ere egongo dira hizpide ditugun esperientzietan. Baina presentzia horizontala izango dute, erabakiak eta kudeaketa partekatua izan dadin. Beraz, dokumentu honetan jorratzen den gaia ez da erakundeaz kanpoko partaidetza, alde batera utzirik gizarte-sormenerako bidezkoa dela. Eta ez da, ezta ere, erakundeen baitako partaidetza; hau da, herritarrentzako espazio puntualak irekitzea (aholku-batzordeak, iradokizunen kutxa, inkestak, eta abar).

Beraz, EBALUAZIO-GIDA honek **instituzioarekin parte hartzeko** esperientziak jorratzen ditu. Horien ondoriozko egiturak nolabait egonkorrak dira, eta partaidetza-politikan esku hartzen duten lau eragileak hartzen dituzte barnean: politikariak, teknikariak, elkarteetan antolatutako herritarrek eta antolatu gabekoak. Lau eragile horiek identifikatu dira oinarritzotzat erantzunkidetasunaren eta elkarrekiko konpromisoaren bitartez partaidetza martxan jartzeko.

Jokaleku mota horrek eragileen arteko mesfidantzak indargabetzen (edo ahultzen) ditu. Ideia horren bitartez,

Democracia en acción (Ganuza et al., 2010: 20) liburuan jasotako apustuari egiten zaio erreferentzia; zehazki, «erkidego politiko plural baten eragile eta protagonistetatik abiatuta eraldatzeko» jardunbide eta metodologiak aldeztu dituenari. Gaineratzen dutenez, jokaleku horretan pertsona guztiak dira beharrezkoak partaidetza-proiektu politikoa formulatzeko, kudeatzeko eta ezartzeko, nor bere bizipen, gizarte-egongune, arazo eta konponbideetatik.

NOLAKOA DA PARTAIDETZAREN IBILBIDEA?

Badakigu norekin abiatuko garen horizonte desiragarri horietarantz, baina oraindik ez dugu ezagutzen bidea. Eta bide horretan, **une** izendatu ditugun etapak bereiz ditzakegu. Etapa guztiek garrantzi berbera dute eta elkarrekin lotuta daude zeharo, hasieran gertatutakoak eragina baitu amaieran. Ildo horretan, partaidetza irudikatzeko ikur egokia da puzzlea; haren bidez, argi ikus dezakegu *une* guztiak lotuta daudela eta, horrenbestez, zati batean egiten denak eragina duela osotasunean.

Idea horrek lotura du EBALUAZIO-GIDA honen zeharkako helburu batekin: esperientziak amaitutakoan kalitatea ebaluatzeko tresna soila izan baino, erabili ahal izan dadila esperientziak abiarazteko jarraibideak sortzeko ere. Berezik garrantzitsua da hori, kontuan hartzen badugu ebaluazioa egokia izango bada hasieratik ekin behar zaiola.



PARTAIDETZA-ESPERIENTZIAREN 5+1 UNEAK

Laburbilduz, aurrez esandako guztia gogoan harturik, partaidetza-esperientzien berezko 5+1 une bereiz daitezke. Bakoitzak bere ezaugarri, iraupen eta elkarreraginak ditu, kasuan-kasuan. Seigarrena etengabeko kontrol eta jarraipenari dagokio, eta zeharkakoa delako nabarmentzen da. Baina goazen banan-banan:



1. Hasiera da; hots, arazo bat identifikatzen eta haren gain jarduteko erabakia hartzen den unea. Hemen, galdera hauek agertzen zaizkigu: zer dakigu horri buruz? Nola formulatu dugu? Eta, oso garrantzitsua, nork formulatu dugu? Erantzuna emateko, ezinbestekoa da esku hartu nahi den testuingurura eta egoerara hurbiltzea. Abiapuntu horrek emango digu errealitate horretan zer faktorek eta elkarrekiko zer erlazioak eragiten duten jakiteko aukera. Testuingurura noiz, non eta norengan gertatzen den gerturatzeko prozesu horretan, diagnostikoa edukiz hornituko duten jarrera partekatuak identifikatzera pasatuko gara. Alderdi horretan, esku hartu nahi dugun gaiari buruzko ezagutza kolektiboa osatzeko tresnatzat ulertzen da diagnostikoa, eta tartean dauden eragileek parte hartzeko irekiagoa edo itxiagoa izan daiteke.



2. Zer arazotan esku hartu nahi dugun diagnostikatu eta gero, partaidetza diseinatzeko unea da, helburuak eta lanerako metodologiak zehaztekoa. Horrez gain, plangintzan jaso beharko da nork parte hartuko duen erakundeak, herritarrak, kolektiboak, eta abar eta zertarako eta nola parte hartu nahi dugun. Hau da, erantzun teknikoa emango zaie jadanik aurreko unean agertu diren galderei: zer lortu nahi dugu? Nola lortu nahi dugu? Nork? Erantzun horiek, jokoaren arauak argitu, eta partaidetza-esperientzia osoa gidatuko dute betiere, egin litezkeen aldaketetara moldatzeko erraza izango da. Eta gainera, eragileei informazioa emango diete beren eginkizunari eta parte hartzeko egon litezkeen baldintzei buruz.



3. Fase honen bitartez, jarduketak planifikatu, gauzatu eta kontrolatzean herritarrei aktiboki esku hartzeko aukera emango dieten jardura eta espazioei egiten zaie erreferentzia. Hau da, une honek partaidetzari berari egiten dio erreferentzia: nork parte hartzen duen diseinatutako espazioetan, eta nola, zer erabaki sortzen diren eta, azkenik, nola hasiko diren ezartzen. Honelako galderak planteatzen dira: zer eremu kolektibo

garatu ditugu? Nola hartzen dira erabakiak? Ba al daude besteak baino indar handiagoa duten presentziak eta ahotsak? Egoera ahulean dauden taldeak gehitu dira? Nola? Erabakiak ezartzean diseinuari jarraitzen ari zaio?

EMAITZAK

4. Une honek hasieratik ezarpenera arte hartu diren erabakien ondorioak aipatzen ditu. Hau da, aztertu behar da diseinuan formulatutako helburuak bete diren eta zer irismen izan duten esperientziaren ondorioek, bai parte-hartzaileengan, bai erreferentziako gizarte edo komunitatean. Beraz, galdera hauek egin behar dira: bete al dira helburuak? Eta, lortu diren emaitzez harago, zer eragin izan du partaidetza-esperientziak?

EBALUAZIOA

5. Une honek, hain justu, lortutako helburuak neurtu diren behatzeari egiten dio erreferentzia. Hau da: ebaluaziorik egin da? Nola egin da? Nork parte hartu du eta nork egin du? Hemen, garrantzitsua da ebaluazioak berak ezer itzuli duen begiratzea. Azken batean, Administrazioak herritarrei kontu eman dien jakitea.

JARRAIPENA

6. Esperientzia baten fase guztietan, zeharka, kontrol- eta segimendulan jarraitua egiten da. Ariketa horrek prozesu osoan zehar etengabe monitorizatzeko eta kontuak emateko tresnak behar ditu, ustekabeko egoerei antzeman eta aurre egiteko eta egiten ari garena etengabe ebaluatzeko.

Jarraipena funtsezkoa da partaidetza-politika baten garapenari segimendua egiteko, diseinatzen denetik ebaluatzen den arte, «garatzen ari dena partaidetzazkoa dela, oinarritzko irizpideak betetzen dituela eta bidean kutsatzen ari ez dela «kontrolatuz»». Eta, kutsatzen ari bada, estrategiak sortu behar dira okerbideak zuzendu ahal izateko.

Une horiek laburbiltzeko, geure mahai-jokoa sortu nahi dugula pentsa dezakegu: *Herritarren partaidetzaren jokoa*. Lehenik eta behin, **jabetu** egin behar gara; hau da, jokoari buruz pentsatu behar dugu: zertara jolastu nahi gara? Hori jakindakoan, **diseinatzen** hasiko gara. Eta, horrekin batera, jokoaren arauak buruz hausnartzen; besteak beste, nork parte hartuko duen, eta nola. Ikus daiteke bi etapa horiek funtsezkoak direla, jokoa nolakoa izango den markatuko dutelako erabat. Hortik abiatuta, partidarekin has gaitezke. Eta, horrenbestez, **erabakiak hartzen** eta horien ondorioz **emaitza** jakin batzuk lortzen. Eta, azkenik, **geure**

burua ebaluatu eta nork irabazi duen jakin dezakegu. Dena dela, hori partida osoan zehar egin ahal (eta behar) dugu. Ahaztu gabe partaidetza-joko on baten irabazleak herritarrek izango direla beti. Eta, azkenik, ezin ditugu ahaztu kontrola eta **jarraipena**; izan ere, joko guztian zehar egin behar dira, funtsezko atalak direnez.



1. JABETZEA: jokoak

Zertara jolastu nahi dugu?

2. DISEINATZEA: arauak

Nola jolastu nahi dugu?

3. GARAPENA: partida

Zer erabaki hartzen ditugu?

4. EMAITZAK: irismena

Noraino iritsiko gara?

5. EBALUAZIOA: balorazioa

Zer moduz joan da partida?

6. JARRAIPENA: arbitrajea

Arauak bete dira?



BERRIZ ERE GURE JOKALEKURA: ZEIN DA IRUÑEKO PARTAIDETZA-JOKALEKUA?

Orain arte, lortu nahi ditugun irizpide desiragarriak zehaztu dira; ezaugarri jakin batzuk, horien gain proiektu ahal izateko jardunbidea egokia izan den. Araututako horizonte batetik hastearen arriskuak gorabehera, interesgarria iruditu zaigu hori kontuan hartzea, herritarren partaidetzaren praktika kutsatuek piztu dituzten mesfidantzak ahultzeko.

Nolanahi ere, arauzkotasuna ez da testuingurua aintzat hartzearekin bateraezina. Ongi dakigu, Marc Parés-ek (2009: 17) ohartarazi bezala, ezen: «parte hartzeko jardunbideak askotarikoak dira, eta errealitate sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak oso heterogeneoak; ondorioz, oso zaila bihurtzen da esperientzia guztietarako balio duen definizio bat aurkitzea». Horiek horrela, Iruñeaz eta bertako auzoen, kulturaren, ekonomiaren, gizartearen eta politikaren aniztasunaz hitz egin nahi digu EBALUAZIO-GIDA honek.

Azken urteotan Iruñean ere zenbait partaidetza-molde sustatu ditu Administrazio publikoak. Hiriko partaidetza-ibilbidearen ardatza, batez ere, parte hartzeko organo egonkorra eta parte-hartze prozesuak bultzatzea izan da, eta duela gutxi garrantzia hartzen hasi dira. Parések eta Resendek (2009: 78-87) definitutakoaren arabera, honako hauek dira jardunbide horiek:

- **PARTAIDETZA-ORGANO EGONKORRAK:** herritarrek udal-kudeaketan eragiteko espazio iraunkorrak; lurralde-mailakoak izan daitezke (auzoak), edo gaiaren edo sektorearen arabekoak (berdintasuna, eta abar).
- **PARTAIDETZA-PROZESUAK:** egoera jakin bati erantzuten dioten partaidetza-ekintzak dira, arazoaren ondoriozko premiek mugatutako iraupena dute, eta ukitutako herritarrei irekitzen zaizkie.

Jardunbide instituzionalizatu horiek udalerrian martxan jarritako partaidetza antolatzen eta erregulatzen duen Erregelamendu baten garapenean babesten dira. Iruñean gauzatzen ari diren ekimenak arautzeko ahalegina osatzera dator EBALUAZIO-GIDA hau, eta kontuak emateko eta jarraipena egiteko tresna bat izan nahi du, Partaidetza bidezko Demokraziaren Tokiko Behatokiak erabil dezan, bereziki, eta baita herritarrek ere, oro har.

Hala, EBALUAZIO-GIDA honetan jasotako tresnak osorik nahiz partzialki aplikatu daitezke partaidetza-esperientzietako bakoitzean. Dena dela, arestian adierazi den bezala, funtsezkoa da tresna horiek egokitzea eta adostea, non aplikatu nahi ditugun, testuinguru zehatz horri erantzun diezaioten. Hemendik aurrera, eremu praktikoagora igaroko gara, gure partaidetza-esperientziak baloratzeko erabil dezakegun tresna sorta bat aurkezturik.

ERREMINTA-
ZUHAITZA





Partaidetza-esperientzien ebaluazioa gogoetarako une bat da, egin den bidearen mapa bat marrazten joateko.

Ongi zein gaizki egindakoen plano bat, ibilbide osoan zehar egin ahal (eta behar) dena. Betiere gogoan izanik zertarako egiten den kartografia-lan hori; hain zuzen, ibilitakoa berriz pentsatzeko eta etorkizunean saio hori edo beste batzuk zuzentzeko, indartzeko, zehazteko eta, azken batean, hobetzeko. Hau da, ez da zigorra, ezta lehiaketa ere, eta beraz, ez da inoiz erabili behar jaurtitzeko arma gisa.

Iruditu zaigu, mapa hori egiteko, oso erabilgarria izan daitekeela partaidetzaren izaerarekin lotura handia duen metafora bat erabiltzea: *ERREMINTA-ZUHAITZA*. *Zuhaitza* da, lurrean, komunitatean, dituelako sustraiak, eta egoki, kontuz eta errespetuz **zaintzen** bada hazi eta fruitu ugari eman dezakeelako. Eta *erremintak* dira zeren, kontzeptu hori adiera zabalean hartuz gero, eskulanaren ideia ekartzen baitigu gogora, helburu bat lortzeko aukera ematen digun tresnarena. Gure kasuan, herritarren kalitateko partaidetza garatzeko.

Jardunbidea egokia izateko oinarritzotzat ditugun 22 erreminta daude gure zuhaitzean. Jakina, ebaluazioan ez da beharrezkoa guzti-guztiak erabiltzea. Edo, agian, testu honetan jaso gabeko tresnaren bat erabili nahi da. Esperientzia nolakoa den eta eskura zer baliabide dauden (ekonomikoak, teknikoak eta giza baliabideak), horren baitan egongo da guztia. Hau da, betiere gogoan hartu beharko da gure *zuhaitza* zer inguruetan dagoen, nolakoa den eta zer premia dituen.

Bestalde, irudi horri esker, partaidetzaren berezko izaera erlazonalaz ere pentsa dezakegu. Kontuan izan behar da maila partikularrean gertatzen denak guztizkoa baldintzatzen duela; *une* batean gertatzen denak eragina du beste batean; eta *erreminta* baten erabilerak beste hainbat tresnarekin izan ohi du lotura. Beraz, partaidetza-esperientzia bat abian jartzen dugunean funtsezkoa da hortaz gogoratzea eta lotura horiei buruz hausnartzea. Eta alderdi guztiak elkarrekin nola lotzen diren ikusteko, zer mapa grafiko dago zuhaitza baino hobea?

Hala, zimenduetan *Lurreko erreminta* deitu ditugunak daude; izan ere, horiek emango digute oinarria esperientzia kalitatez garatzeko, **justizia sozialari** dagokionez. Moltzo hori da ugariena, eta bertan aurkituko ditugu IRISGARRITASUNA, GAIKUNTZA, SORMENA, INKLUSIOA, GARDENTASUNA eta ZEHARKAKOTASUNA, gainerako irizpideak hornituko dituzten bizigarriak. Horregatik, lotura sendoak dituzte beste erreminta guztiekin eta, partaidetza-jardunbideak balorazio ona izango badu, funtsezkoa da besteetan horiek agertzea (EBALUAZIO-GIDA honen amaieran eskaintzen dizuegun adierazle-txantiloian gauzatuko den bezala).

Jarraian, *Sustrai-erremintak* daude. Lurreko mantenugaez elikatzen dira, eta, aldi berean, zuhaitzaren gainerako ataletara helarazten dituzte. Sustraion indarrak esperientzia osoaren prozesua baldintzatzen du. Beraz, esku hartzen duten eragileek PROPOSATZEKO GAITASUNA izatea, ABIABURUKO JOKALEKUA, proposatutako HELBURUAK eta BALIABIDEEN PLANGINTZA funtsezko elementuak dira, eta partaidetza-jardunbidea garatzeko dauden erraztasun eta zailtasunak markatuko dituzte.

Lurrak elikatzen du eta sustraiek sostengatu egiten dute; enborrak, aldiz, zuhaitza zutik iraunarazten edo bere pisuz erorarazten du. Horregatik, *Enborreko erremintek* oinarrian eta adaburuan gertatzen ari dena konektatzen dute, eta esperientzia errazteko bitartekoak ematen dituzte. ITZULKETAK, DINAMIZAZIOAK, INFORMAZIOAK eta EZAGUTZAK ETA AITORTZAK ahalbidetuko dituzte atal guztien arteko sinergiak, zeinak, kalitatearen arabera, oparagoak edo kaskarragoak izango baitira.

Ondoren, adarkatuz luzatzen da enborra eta, hala, aberatsagoa eta handiagoa bihurtzen da zuhaitza. Alderdi horretan, PARTAIDETZAREN IRISMENAK, LIDERGOAK eta SAREEK adarreko erreminta gisa funtzionatzen dute.

- _ LURREKO ERREMINTAK
- _ SUSTRAI-ERREMINTAK
- _ ENBORREKO ERREMINTAK
- _ ADARREKO ERREMINTAK
- _ FRUITU-ERREMINTAK

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagorekin, fruituak aurkituko ditugu. Gizartea eraldatzeko herritarren partaidetza bultzatzen duten horizonte desiragarriak dira. Ildo horretan, HERRITARREN AUTONOMIA, KOGESTIOA, KONPROMISO LOTESLEA, KULTURA POLITIKOA eta AHALDUNTZEA dira *fruitu-erremintak*. Baina *hazi-erremintatzat* ere har ditzakegu; izan ere, etorkizunean beste partaidetza-esperientzia batzuk landatzeko ale bihurtuko dira, halaber.

Horrenbestez, testu honetan zehar, xehekiago aztertuko dugu erreminta horietako bakoitza. Haietako bakoitza labur deskribatu, zertarako erabil daitekeen azaldu, eta hura neurtzeko modu eta adierazle posibleak ematen dira, baita iradokizunen bat ere, zorrotasunari eusteko eta partaidetza-esperientziekin bat egiten dutenen artean eraldatze-xedera hurbiltzeko. Eredu bakoitzak, prozesu bakoitzak, interesdun bakoitzak, testuinguruaren eta beharren arabera behar duen tresna berreskuratu ahal izango duela ahaztu gabe, EBALUAZIO-GIDA hau hazi multzo bat balitz bezala antolatu da, ingurune bakoitzari partaidetza-baso handi bat ereiten laguntzeko.



LURREKO ERREMINTAK

Justizia sozialari dagokionez kalitatezkotzat jo nahi den edozein jardun partizipatibo elikatzen duten tresnak dira. Hortik datorkie Lurreko Erremintak izena, esperientziaren oinarri gisa aritzen baitira, eta testu honetan gogoetagai izango ditugun gainerako erremintak elikatzen ditu.

IRISGARRITASUNA
GAIKUNTZA
SORMENA
INKLUSIOA
GARDENTASUNA
ZEHARKAKOTASUNA

IRISGARRITASUNA



Hasieratik, kontuan eduki behar da edonork parte hartzeko diseinatu behar direla esperientzia guztiak, nolanahiko gaitasun kognitibo, fisiko, pertsonal edo tekniko dituela ere.

Alderdi horretan, azpimarratu behar da hainbat arauditan eta jardunbide egokien gidaliburutan aitortzen eta jasotzen dela IRISGARRITASUNA funtzionamendu demokratiko onaren funtsezko ataltzat. Hala ere, gehiegitan ez zaio jaramonik egiten tresna horri, baliabide urriak daudelako edo plangintzan eta/edo garapenean bertan alde batera utzi delako.

Izan ere, ohikoa da esperientziak irudikatu, diseinatu eta abian jartzean geure egunerokotasunetik jardutea. Hala, ez diegu arretarik jartzen gure egoera pertsonal eta sozialarekin bat ez datozen premiei.

Horregatik, ezinbestekoa da *beste norbaiten oinetakoetan ibiltzea* deritzon horren ariketa bat egitea. Hau da, partaidetza galarazten edo oztopatzen duten trabak identifikatzea, ahal den neurrian, eta horiek saihesteko zer laguntza fisiko, gizatiar edo teknologiko behar den pentsatzea.


Nola ebaluatzen dugu?

Irisgarritasun fisikoa aztertzea: erabilitako espazioak irisgarriak dira?

Irisgarritasun kognitiboa aztertzea: herritar guztien partaidetza bermatzeko giza baliabideak eta baliabide teknikoak daude eskura? Prozesu osoan zehar erabiltzen dira?

Irisgarritasun teknikoa aztertzea: kontuan hartu dira egon litezkeen eten eta arrailak? Adibidez, digitala? Zer neurri hartu dira? Nahikoak al dira?

Parte-hartzaileen pertzepzioa: oztoporik sumatu dute? Horien berri emateko aukerarik dago? Hala bada, neurririk hartzen da?



GAIKUNTZA



Oro har, kultura politiko nagusiak herritarren jarrera pasiboa sustatzera jotzen du; ordezkarien esku uzten du erabakiak hartzeko lana, eta bozkatzeko eskubidea erabiltzera mugatzen ditu. Hala, herri-jakituria gureganatuta, gogoratu behar dugu *etxea ez dela teilatutik hasten*, eta ez dugu begien bistatik galdu behar hasieratik ekin behar zaiola. Hau da, parte hartzen ikasi behar dugu.

Horiek horrela, ahalegin gehigarria egin behar da ohitura horiek eraldatu eta jarrera aktiboagoa lortzeko, eta esperientziaren plangintzak eta garapenak barnean hartu behar du ahalegin hori. Alegia, pedagogia izan behar da helburu nagusietako bat, herritarren prestakuntza sendotu dadin (ikastaroak, jardunaldiak, tailerrak, eta abar eginez), bereziki, hiru dimentsio handi hauei dagokienez:

a) Jorratuko den gaia: esperientziarekin zerikusia duten alderdi konplexuenak ulerterraz bihurtzea. Gogoan eduki behar da zerbait erraz azaltzeak ez duela esan nahi sinplifikazio edo paternalismoetan erortzea.

b) Parte hartzeko gaitasuna: entzute aktiboa sustatzea, jendaurrean hitz egiteko gaitzea, taldeen artean izan daitezkeen tirabirak lantzea...

c) Oinarri demokratikoak: esperientziaren beraren, Administrazioaren zein egitura politiko eta sozialen funtzionamenduari buruz hausnartzea.

Tresna hori herritar guztientzat da erabilgarria, baina kontuan izan behar da funtsezkoa dela politikari eta teknikarientzat (eta ez dute beti izaten herritarren partaidetzari eta abian jarriko diren gaiei buruzko prestakuntza).

Nola ebaluatzen dugu?

Prozesuko arazo nagusiari buruzko prestakuntza aztertzea: ikastaroak, jardunaldiak edo tailerrak sortu dira? Zer helburu dituzte? Zer gai jorratzen dituzte? Nor bertara daiteke?

Prestakuntzaren bolumena aztertzea: zenbat lagun bertaratu dira prestakuntzara? Bertaratutakoen kopurua mantendu da? Administrazioaren kasuan, zein alor daude tartean? Zenbat eragile bertaratu dira? Zer ehunekotan? Zenbat politikari? Zenbat teknikari?

Parte-hartzaileen partaidetza-trebetasunen pertzepzioa: partaidetzan bertan ikaskuntzak garatu dituzte? Entzutean eboluziorik izan da? Pertsona gehiago ausartu dira hitz egitera, edo beti berberak dira? Elkar ulermena hobetu da, eztabaida aberastu da, edo nor bere jarreretan tematu da?

Talde dinamizatzailearen/prestatzailearen pertzepzioa: parte-hartzaileek konpromisoa agertu dute? Parte hartzeko jarrera dute?

SORMENA



Gure iritziz, herritarren partaidetzak era askotako jokaleku kultural, ekonomiko, politiko eta sozialei eman nahi die erantzuna, **demokrazian sakonduz**. Tokian tokikoa, justizia soziala eta herritarren partaidetza aktiboa sustatzu ordezkarietako demokraziaren krisia gainditu nahi duen bide bat da. Eredu horrek hamarkadako ibilbidea izan arren (eta, Latinoamerikako herrialdeen kasuan, indarrez ibilia), gure inguruan oraindik ere hasi berriak dira halako esperientziak.

Horregatik, SORMENA oinarritzko erreminta da esperientziak diseinatzeko garaian. Originaltasuna eta berrikuntza beharrezkoak dira formula berriak txertatzeko edo arrakasta izan duten beste bizipen batzuetako elementuak egokitzeke, sortzen direnean bertan nahiz une edo erreminta jakin batean.

IRADOKIZUNA

Nabarmendu behar da sormen sozialaren asmoa beti izan behar dela guztion onura, justizia soziala eta eraginkortasuna lortzea, eta etengabe eboluzionatzen eta hobetzen ari den baterako ikaskuntza-prozesu gisa ulertu behar dela.

Nola ebaluatzen dugu?

Sormena aztertzea: non aplikatu dugu berrikuntza (gaia, tresnak, deitutako taldeak)? Guztion onuraren, justizia sozialaren eta eraginkortasunaren gidalerroak betetzen ditu? Ideia guztiz originala da edo beste esperientzia batetik ekarri da? Moldatu egin bada, egokitzean kontuan hartu al dira udalerriko premiak eta gaitasunak? Zer emaitza izan ditu? Zein ziren espero izatekoak? Zein ustekabekoak? Etorkizunean antzeko esperientzia eginez gero hobetu daiteke? Zer indartu beharko litzateke?

Sormenaren eraginaren pertzepzioa: nola hauteman dituzte elementu berritzaileak politikariek, teknikariek, gizarte-eragileek eta herritarrek? Haiei buruzko informazioa jaso dute? Erraztaileak iruditu zaizkie? Edo aldiz, partaidetza eragotzi dute alderdi batean edo gehiagotan? Lagungarria al da *lurreko beste erremintak* (esaterako, irisgarritasuna, gaikuntza edo inklusioa) indartzeko?

INKLUSIOA



Dagoeneko sarreran adierazi dugu herritarren partaidetza ez dagoela dominazio-molde batzuk birproduzitzetik libre, berdin dio zein diren: gizarte-maila, aniztasun funtzionala, adina, generoa, kultur maila, jatorria, arraza eta beste hainbat. Ondorioz, gehienetan, herritar profil oso zehatz baten mende geratu ohi dira partaidetza-guneak: partaidetza-ibilbide luzeko gizona, bertakoa eta erdi- edo goi-mailakoa (alor kultural nahiz ekonomikoan).

Profil horren presentziak eta ahotsak gehiegizko neurria hartzen du eta, ezinbestean, beste talde batzuek gutxiegi ordezkaritza izatea eragiten du. Kanpo utzi ohi diren taldeez ari gara: besteak beste, maila kultural edo ekonomiko baxuagokoak, gutxiengo etnikoak, emakumeak, gazteak eta etorkinak. Orokorrean, talde horiek gutxiago agertzen dira esperientzietan eta, agertzen direnean, partaidetza-maila txikiagoa izaten dute. Eta hori gertatzen denean, ikusezin bihurtzen ditugu haien begiradak eta jarrerak ere.

IRISGARRITASUNAREKIN gerta bezala, araudi ugaritan onartu eta jaso da INKLUSIOA. Hala ere, sarritan, *paper bustia* besterik ez da amaieran. Horregatik, funtsezkoa da hasieratik lotzea esperientziaren kalitatea gizarteratzeko gaitasunarekin. Oso ariketa konplexua da, baina beharrezkoa homogeneousotasun hori apurtzeko eta, hala, gure gizartearen aniztasunak eta barne hartzen dituen begirada eta ahots guztiek ordezkaritza izatearen alde egiteko.

Illo horretan, berriz aipatu behar dugu *besteren oinetakoetan ibili* behar dela, baina oraingoan taldeez ari gara. Horregatik, oso erabilgarria da aurrez udalerrian dauden taldeak mapatzea, hasieratik horiek kontuan hartu ahal izateko. Hala, dauden premia guztietara egokitu ahal izango dugu esperientzia eta parte hartzera bultzatu ahal izango ditugu. Gainera, elkarteetako kide ez diren

herritarrek mobilizatzen saiatu behar gara, ikuspegi intersektzionaletik; izan ere, oraingoz, biztanle gehienak daude talde horretan.

Presentzia fisikoa izatea ez da aski, ordea. Normalean kalteberatasun-egoera larriagoan dauden ahotsak lehenetsi behar dira, halaber. Hala, gomendagarria da pertsona guztiak eroso eta adierazteko aske sentitzea ahalbidetzen duten mekanismoak txertatzea, eta ahots horiek guztiak entzutea eta kontuan hartzea. Nolanahi ere, aurrerako xehekiago azalduko dugu hori guztia DINAMIZAZIO erremintari buruzko atalean.

IRADOKIZUNA

Gogoan izan behar da esperientziaren hasieratik datuak bereizirik ez jasotzea dela akats ohikoenetako bat; beraz, hasieratik hori gogoan hartzea gomendatzen da.

Gainera, berriz esango dugu, giza talde batzuk propio seinalatzea da kontua, interesgarria baita haiek parte hartzea, erabakiak hartzeko guneetatik kanpo utzi ohi direnez.

Nola ebaluatzen dugu?

Kanpo utzi ohi diren gizarte-taldeen ehuneko haztatua: zer profilek parte hartu dute esperientzian? Horretarako, gizarteko aniztasunari buruz hausnartzeko aukera ematen diguten edo kasuan kasuko esperientziarako interesgarriak diren ardatzetan pentsa dezakegu, alde batera utzirik zenbakizko ordezkaritza. Adibidez, ardatz hauek aipa daitezke: lurralde-eremuak, gizarte-mailak, aniztasun funtzionala, etniak/arrazak, hizkuntzak, LGTBI+, migratzaileak, emakumeak, kultura-mailak, adin-tarteak...

Aniztasunaren indizea: zer heterogeneotasun-maila dago esperientzian? Partaidetza bidezko Demokraziaren Behatokiak puntuazio-bidezko indize agregatua osatzea proposatzen du, eta lehenetsitako taldeen presentzia eta ordezkaritza soziala bat datozen begiratura ematea puntuak. Horrela, haien ereduari jarraikiz, 5 puntu emango dira parte hartzen duten emakumeen ehunekoa erreferentziako gizartearen dagoenaren berdina edo handiagoa bada. Era berean, beste 5 puntu gehituko dira etorkinen kasuan ehuneko hori berdina edo handiagoa bada, eta beste 5 gazteak badira. Azkenik, 15 puntu dituen esperientziak aniztasun indize altua izango du, 10 puntu dituenak ertaina, eta 5 puntu dituenak baxua.

Esperientziaren diseinatzaila aztertzea: zer profil dute prozesua diseinatzeko esku hartu du(t)en eragileak edo eragileak? Zer ardatzek zeharkatzen dute diseinatzaila? Nork diseinatu du? Nork dinamizatzen du?

Prozesuan esku hartzen duten elkarte eta gizarte-taldeak aztertzea: zer oinarri dituzte? Zer gizarte-sektoreekin lan egiten dute eskuarki? Zer profil dute esperientziara bertaratzeko diren ordezkariek? Zer ardatz dira nagusi?

Prozesuan egindako akta eta txostenak aztertzea: nork ekiten dio eta nor jartzen da buruan? Ahotsak orekatuta al daude parte-hartzeari, denborei eta legitimotasunari dagokienez?

Espazio eta ordutegiak aztertzea: ordutegi desberdinetan egiten al dira bilerak, herritarren behar desberdinak harturik gogoan? Laguntza-zerbitzurik al dago? Adibidez, haurtzaindegia? Beti erabilgarri daude edo aurrez izena eman behar da?

Dinamizatzeko erabilitako teknikak aztertzea: erabiltzen al da elkarrizketa eta ahotsen oreka errazteko partaidetza-teknikarik?

PARTE-HARTZAILEEN PERTZEPZIOA: Zer iritzi dute prozesuari buruz? Inklusioa iruditu zaie? Ahotsen baten falta sumatu dute? Zer ahotsena? Zer iritzi dute sortu den giroari buruz?

GARDENTASUNA



Azken urteotan, adostasuna sortzen du gobernuak herritarrei kontu eman eta baliabide publikoekin zer egiten duten azaldu behar dietelako ideiak. Hau da, bestelako Administrazio publikoa sustatu nahi da: hurbilagoa, interaktiboagoa eta arduratsuagoa, eta araudi batean baino gehiagotan jaso da hala; besteak beste, duela gutxi, maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea onartu da (gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearren eta gobernu onaren legea).

Beraz, partaidetza-jardunbide on batek barnean hartu behar du GARDENTASUNA, ezinbesteko baldintza baita gizarte-eragileak eta herritarrak erabakiak hartzeko guneetan sar daitezen. Tresna horren bitartez, Administrazioek baliabideekin eta denborekin zer egiten duten jakin dezakegu. Gainera, informazioaren jarioa hobetzeko eta bai esperientzia bai ondorengo ekintza politikoak hobeto kontrolatzeko aukera ematen du. Ikus daitekeen bezala, lotura handia du aurrerago azalduko dugun INFORMAZIOA erremintarekin.

Nola ebaluatzen dugu?

Kanalak aztertzea: informazioa jendarteratzeko aukera ematen duten mekanismoak sortu dira? Zer mekanismo dira? Zenbat daude? Esperientziaren zein unetan aktibatzen dira? Esperientzia amaitutakoan adostutakoari buruzko kontrola luzatzeko aukera ematen da?

Jarraipen-mekanismoak aztertzea: nola funtzionatzen dute kanal horiek? Formatu batean baino gehiagotan ematen dute informazioa? Informazioa herritarrekin fiskalizatzeko eremuak sortu dira? Zer maiztasunez deitzen dira kontu emateko eta informatzeko eremuak?

Herritarren pertzepzioa: Gizarte-eragileak eta herritarrak pozik al daude esperientziaren gardentasunarekin?

ZEHARKAKOTASUNA



Arazo bati ekiteko, era askotako eragileak, tresnak eta baliabideak sartu behar dira tartean. Eta horrek eragin nabaria du Udalaren alorretan. Izan ere, partaidetzazko ikuspegiak funtsezko premia bihurtzen du ZEHARKAKOTASUNA modu kolektibo, integral eta erlazionalean lan egiteko orduan, Administrazioak eraginkortasun handiagoz funtziona dezala bermatzeko.

Horregatik, prozesu osoan zehar, koordinazioz eta horizontalki lan egin behar dute esku hartzen duten alor guztiek. Hots, politikariz eta teknikariz osatutako lantaldeak egin behar dira, informazioa, ahaleginak eta baliabideak partekatze eta, ondorioz, eraginkorki, elkarrekin erlazionatuta, malguki eta gardenki funtzionatzeko.

Nola ebaluatzen dugu?

Esku hartzen duen alor kopurua aztertzea: zein alorrek esku hartzen dute zuzenean? Eta zeharka?

Alorren inplikazio-maila aztertzea: zein alor dira beharrezkoak esperientzia behar bezala gara dadin? Esku hartzen al dute? Zer alorren falta sumatu da? Zergatik ez dute esku hartu?

Sortutako eremuak aztertzea: elkarriketarako gune berriak sortu dira edo lehendik ere bazegoen bat erabili da? Informatzeko edo erabakitzeko eremuak dira? Zer atera da haietatik? Baliabideak partekatu dira?

Politikari eta teknikarien pertzepzioa: nola deskribatu dute alorren arteko lankidetzak? Zer oztopo hauteman dituzte? Zer indargune? Alorretako baten faltarik sumatu dute? Zer-nolako harremana dago politikarien artean? Eta teknikarien artean?



SUSTRAI-ERREMINTAK

Esperientzia osorako funtsa osatzen duten tresnak dira. Izenak esaten duen bezala, Sustrai Erremintak lehen uneei lotuta daude. Hau da, haren diseinuari lotuta, eta, hortaz, etorkizuneko garapenaren ahulguneak eta indarguneak baldintzatuko ditu.

PROPOSATZEKO GAITASUNA ABIAPUNTUKO JOKALEKUA BALIABIDEEN PLANGINTZA HELBURUAK

PROPOSATZEKO GAITASUNA



Partaidetza-esperientzia baten *uneetan* proposamenak nork egin ahal izango dituen zehazteak markatuko du, hein handi batean, esperientziaren muina. Gai hori funtsezkoa izan arren, egia esan oraindik konpondu gabeko eztabaida bat da zein izan daitekeen irekitasun-maila egokiena, eta hainbat faktorek eragiten dute horren gainean: ezaugarriak, testuingurua, gaia, erabilgarri dauden baliabideak, eta beste hainbat.

Dena dela, gure ustez erakundeek ahalegina egin behar dute politikari eta teknikariek gain herritarrak ere inplikatzeko (hala elkarteetako kide direnak nola ez direnak) komunitatearen garapenari ekarpena egiteko. Inplikazioak kontsulta- eta/edo eztabaida-eginkizun hutsetik harago joan behar du (eginkizun horiei garrantzia kendu nahi gabe), eta herritarrei benetan eragiteko gaitasuna ematearen alde egin behar da apustu.

Izan ere, PROPOSATZEKO GAITASUNA berez arrakastaren berme izan ez arren, erreminta hori administrazioen eta herritarren arteko konfiantza eta konpromisoa eragin dezakeela ulertzen da.

IRADOKIZUNA

Nolanahi ere den, oso garrantzitsua da proposatzeko gaitasuna hasieratik zehaztuta geratzea, mugak eta mugaketak hasieratik argi eta garbi adierazita, eta amaierara arte eustea egindako akordioari, etorkizunean ez dadin egon herritarrak parte hartzeko gogorik gabe utz ditzakeen frustraziorik.

Nola ebaluatzen dugu?

Proposatzeiko gaitasuna aztertzea (I): planteamendua: nork egin ditzake proposamenak? Zein *unetan*? Zer gairi buruz? Lantalde teknikoak proposamenak errazten eta sustatzen ditu? Eta gizarte-ehunak? Eta elkarteetan ez dauden herritarrek? Zergatik hartzen da esperientzia gehiago edo gutxiago zabaltzeko erabakia? Justifikatzen da?

Proposatzeiko gaitasuna aztertzea (II): erabilera: nork baliatzen du proposatzeko gaitasuna? Nork proposatzen du? Teknikariek, elkarteen sareak, edo herritar partikularrek? Azkenik, kontuan hartzen al dira proposamenak? Jokoaren arauak betetzen dira edo hartutako konpromisoak urratzen dira?

Parte-hartzaileen pertzepzioa: nola hautematen dute proposatzeko gaitasuna? Proposatzeiko bidea irisgarria eta erraza dela uste dute? Proposamenak egin dituzte? Zer oztopo aurkitu dituzte? Horiek gaidintzeko laguntzak daude? Erreminta honi dagokionez, jokoaren arauak ongi planteatuta zeudela ulertzen da? Amaierara arte jarraitu zaiela uste dute?

ABIAPUNTUKO JOKALEKUA



ABIAPUNTUKO JOKALEKU nozioaren bitartez, esperientziaren hasierako testuinguru kultural, politiko eta soziala aipatzen dugu, aurrez giro mesedegarria dagoen jakin nahian; hau da, partaidetza-jardunbidearen beharrari, diseinua eta garapenari dagokionez onarpen- eta adostasun-maila jakin batzuk dauden.

Partaidetza-jardunbideak funtziona dezake etsai-giroan (baita giro hori eraldatu ere), baina egia da esparruak esperientziaren diseinua eta garapena errazten duela; beraz, ontzat jo behar dira aurrez ildo horretan egindako ahaleginak.

Hala, bereziki interesatzen zaigu zenbait faktoreen berri izatea: adibidez, partaidetza-jardunbidea aurretiazko eskari edo premia batetik abiatu den, zer onarpen-maila dagoen tarteko eragileen artean, eta aurretiazko konpromisorik dagoen esperientzia martxan jartzeko.

Nola ebaluatzen dugu?

Jokaleku politikoa aztertzea (I): agenda politikoa: jorratuko den gaia tokiko gobernuaren agenda politikoren barruan dago? Talde politikoren baten edo gehiagoren agendan?

Jokaleku politikoa aztertzea (II): eskumena arlo horretan: jorratuko den gaia udalaren eskumenpekoa da? Zenbateraino? Zer alor hartzen ditu barnean?

Jokaleku politikoa aztertzea (III): konpromisoa: talde desberdinetako eragile politikoen artean bilerak egiten dira alde aurretik? Talde politikoen artean aurretiaz konpromisoa lortu da arlo horri dagokionez? Oposizioarekin akordioak lortu da?

Jokaleku administratiboa aztertzea (I): zeharkakotasuna: alorren artean bilerak egiten dituzte aurrez? Konpromisora iritsi dira? Zer harreman dago esku hartzen duten eragileen artean?

Jokaleku soziala aztertzea (I): Herritarrek iradokizunak egiteko mekanismoren baten bitartez proposatu dute gaia? Edo gizarte-ehunaren aldarrikapen bat da? Giroak gai horretan parte hartzea laguntzen du?

Onarpenaren balorazioa (I): politikariak: zenbateraino onartzen da politikaren eremuan? Nor dago aurka? Zergatik? Akordioak egin nahi dira edo elkarriketa hasieratik eten da?

Onarpenaren balorazioa (II): teknikariak: zenbateraino onartzen da eremu teknikoan? Nor dago aurka? Zergatik? Zer iritzi dute aurretiazko giro politikoari buruz? Eta herritarren artekoari buruz?

Onarpenaren balorazioa (III): herritarrak: zenbateraino onartzen da gizarte-eremuan? Nor dago aurka? Zergatik?

IRADOKIZUNA

Gomendagarria da aurrez harremanak mapatzea eta kontaktuekin bilera sorta bat egitea (politikari, teknikari eta gizarte-eragileekin), testuingurua ezagutzeko eta esperientzia abiaraztea erraztuko duten loturak eratzen hasi ahal izateko.

BALIABIDEEN PLANGINTZA



Esperientziarako zenbat eta zer-nolako baliabideak erabiltzen diren, esperientziaren kalitateari buruz hausnartzeko aukera emango digu horrek ere. Dena dela, ez gara kalitatea zifretan soilik neurtzera eramango gaituen alderdi kuantitatibo soilean geratu behar, dela onerako (diru kopuru handia inbertitzeak konpromiso handia dagoela esan nahi du), dela txarrerako (asko xahutzen da).

Hots, begirada zabaldu behar dugu, eta zifrak ez ezik, erabili diren bitartekoak ongi erabili diren, kalitatezkoak izan diren eta nola erabili diren ere aztertu behar dugu. Horretarako, interesgarria da *jasangarritasun-faktorea* txertatzea plangintzan; horrek esan nahi du beharrezko baliabideetan inbertsioa egitea, baina Udalaren oreka ekonomikoa bermatuta eta beharrik gabeko gasturik egin gabe.

Laburbilduz, baliabideen plangintzak eraginkortasuna neurtzeko aukera emango digu, *une* guztietan, adiera zabal eta konplexuan ulertuta eraginkortasun hori. Izan ere, hainbat kontu hartu behar dira aintzat: hala ekonomiarekin nola giza alderdiarekin lotutakoak, hala materialak nola immaterialak. Bestela esanda, zama pertsonalei eta ager litekeen nekeari ere erreparatu behar zaie, eta denborak eta zainketak kudeatzear arduratu behar gara.

IRADOKIZUNA

Ebaluatzeko, garrantzitsua da GARDENTASUNEZ jardutea eta esperientziaren hasieratik datuak biltzea.

Nola ebaluatzen dugu?

Bideratutako aurrekontua aztertzea: zer aurrekontu bideratu da? Zer ehuneko hartzen du esku hartzen du(t)en alorraren edo alorren guztizko aurrekontutik? Une horretan onargarriak dira baliabide horiek?

Baliabideen mobilizazioa aztertzea: zer giza baliabide eta baliabide tekniko erabili dira esperientzian zehar? Zein dira propioak (espazioak, langileak, eta abar)? Zein atera dira kanpora? Ongi erabili dira? Zertarako eta norentzat bideratu dira? *Lurreko erremintetan* (irisgarritasuna, gaikuntza, inklusioa, eta abar) gehiago sakontzea eragin dute?

Baliabide ekonomikoaren eraginkortasuna aztertzea: aurreikusitako plangintzarekin bat al datoz baliabideak? Ez bada hala, zergatik egin dira aldaketak? Aurrez ikus zitezkeen?

Denboren eraginkortasuna aztertzea: aurreikusitako plangintzarekin bat al datoz denborak? Ez bada hala, zergatik egin dira aldaketak?



Helburuak dira esperientzian zehar erdietsi nahi diren xedeak, baina herritarrekiko konpromisoa ere sinbolizatzen dute. Horregatik, horiek formulatzeko unea funtsezkoa da, bi dimentsiotan oinarrituta::

- Helburu orokorrak: azken emaitzak lortzearekin lotutako xede zabalagoak adierazten dituzte.
- Helburu espezifikoak edo bitartekoak: xede zehatzagoak adierazten dituzte. Lau arrazoiengatik dira funtsezkoak: a) helburu edo problematika zehatzagoak adierazteko aukera ematen dute; b) esperientzian zehar izandako aurrerapenak ikustea ahalbidetzen dute; c) frustrazioak arintzeko aukera ematen dute helburu orokorrak betetzen ez badira edo atzeratzen badira; eta d) haiei esker, balioa eman dakieke zehatzagoak baina berdin-berdin garrantzitsuak diren beste lorpen batzuei.

Kalitatezko zat har daitezen, ezaugarri jakin batzuk izan behar dituzte biek ala biek (horietako batzuk *Lurreko erreminta* delakoekin gurutzatzen dira):

- Argiak: argi eta zehatz idatzi behar dira, ondoren nahasterik eta lerrabiderik egon ez dadin.
- Koherenteak: esku hartzen duten alorren eskumenetara egokitu behar dira.
- Ebaluagarriak: edozein unetan neurtu eta ebaluatu ahal izateko irizpideak zehaztu behar dira.
- Inklusiboak: hasieratik hartu behar dituzte inklusioa eta justizia soziala barnean.
- Egingarriak: bideragarriak izan behar dira, eskura dauden giza baliabideak eta baliabide teknikoak kontuan hartuta, itxaropen faltsurik eta frustraziorik egon ez dadin.

- Gardenak: publikoak izan behar dira eta informazio-kanpainaren barruan sartu behar dira.
- Zeharkakoak: koherentziari eta bideragarritasunari dagokionez, kontuan hartu behar da zein alorrek esku hartuko duten eta zer konpromiso maila duten, helburuak hasieratik egokitu ahal izateko..

Hortik aurrera, esperientzia osoan zehar bete beharreko gidaliburu gisa funtzionatu behar dute helburuek; beraz, prozesu bat kalitatezkoa izateko erabakigarria izango da horiek betetzen diren.

IRADOKIZUNA

Ebaluazio jarraituari esker, helburu orokorrak idaztean egin diren akatsak edo inkoherentziak hauteman daitezke; hartara, berriz zehazteko aukera izango dugu.

Nola ebaluatzen dugu?

Helburu orokorrak aztertzea: helburu orokorrak zehaztu dira? Argiak, koherenteak, ebaluagarriak, inklusiboak, egingarriak eta zeharkakoak dira?

Helburu orokorrak aztertzea: helburu espezifikoak zehaztu dira? Argiak, koherenteak, ebaluagarriak, inklusiboak, egingarriak eta zeharkakoak dira?

Egokitzeko gaitasuna aztertzea: esperientzian zehar berriz zehaztu dira helburuak? Zergatik? Zer aldaketa sartu dira? Justifikatu dira?

Helburu orokorrak bete diren aztertzea: bete dira? Zergatik ez dira bete?

Helburu espezifikoak bete diren aztertzea: bete dira? Ez badira bete, zergatik?

Helburuak ebaluatzeko mekanismoak aztertzea: jarraipen-batzordeak sortu dira? Zenbatetan biltzen dira? Zer gomendio ematen dituzte?

Helburuen lorpenari buruzko pertzepzioa politikarien, teknikarien eta herritarren artean: zer balio ematen zaio helburu orokorrak lortzeari? Eta helburu espezifikoak lortzeari? Zer sentsazio dago, oro har?



ENBORREKO ERREMINTAK

Enborreko erremintak
esperientziaren indarra adierazten
dute eta tresna batzuen eta besteen
arteko konektore gisa funtzionatzen
dute. Esperientzian erabilitako
metodoei buruz ari gara.

ITZULKETA
DINAMIZAZIOA
INFORMAZIOA
EZAGUTZA ETA AITORTZA

ITZULKETA



Partaidetzaren eremuan, beharrezkoa da esperientzian zehar egiten diren bileretan atera diren ideia nagusiak herritarrei itzultzeko konpromisoa izatea. Gardentasun-ariketa horri esker, informazioa argitu, zabaldu eta/edo jaso daiteke, bertaratu ezin izan diren pertsonak egunean egon ahal izateko, baita iritziak eta hartutako erabakiak erkatu eta baliozkotu ahal izateko ere.

Gogoratu behar da garrantzitsua dela itzulketek *Lurreko erreminta* delakoei jarraitzea (IRISGARRITASUNA, INKLUSIOA, eta beste) eta herritarren premietara egokitzea. Bestalde, gogoratu behar da informazio erabilgarria eta koherentea eman behar dela, betiere profiletan eta esperientziaren xedeetan pentsatuz.

IRADOKIZUNA

Partaidetza-esperientziaren amaieran, ITZULKETA orokorra egin behar da beti. Era berean, jardunbidearen luze-zabalak horretarako aukera ematen badu, gomendagarria da une bakoitzaren amaieran edo interesgarritzat hartzen diren egoeretan itzulketa txikiak egitea. Ildo horretan, eta partaideak gogaitu gabe betiere, gomendagarria da egindako biderei buruzko iritziak eta ideiak jasotzeko aukera emango duten itzulketa irekiak egitea, zuzenketak eta/edo hobekuntzak sartzeko.

Nola ebaluatzen dugu?

Edukia aztertzea: zer sartzen da dokumentuetan? Esperientzian zehar agertu diren jarrera guztiak hartu al dira kontuan? *Lurreko erremintak* erabiltzen dira?

Formatua aztertzea: zer formatu du? Partaidetzazkoa da, edo informatzekoa soilik? Emailtzak hedatzen/argitzen/baliozkotzen dira?

Bolumena aztertzea: zenbat itzulketa egin dira? Une guztietan gertatu dira? Zein da deia? Zenbat pertsonak parte hartzen dute?

Atzeraelikadura aztertzea: parte-hartzaileen ideiak jasotzen dira? Kexak erantzuten dira? Jasotako zuzenketaren edo iradokizunen bat txertatu al da esperientzian?

Parte-hartzaileen pertzepzioa aztertzea: zer iritzi dute itzulketei buruz? Erabilgarriak iruditzen zaizkie? Irisgarriak? Inklusiboak? Haietan ordezkatura sumatzen duten euren burua?



Partaidetza-esperientzian zehar, elkarriketa sustatzeko eta erabakiak hartzeko tresnak erabili ahal (behar) dira, adostasuna lortzeko (edo desadostasunak adierazteko). Horretarako, bi faktore nagusi hartu behar dira kontuan: adostasuna eta giro aske eta begirunetsua sortzea.

Adostasunari dagokionez, esan nahi dugu erabakiak adostasunean pentsatuz hartu behar direla, eta ez gehiengoak eta botazioak erabiliz, arbuioa eta frustrazioak sortzen baitituzte, eta esperientzia bertan behera uztera baitaramate. Horretarako, elkarriketetan oinarritutako mekanismoak hautatu behar dira.

Bestalde, funtsezkoa da zerbait adierazi nahi duten guztiek aske adieraz dezaketela ziurtatzea. Hori erronka bat da; izan ere, elkarriketara gonbidatuko duen giro aski eroso sortu behar da, norbaitek edo talde jakin batek espazioa bereganatzea eta kanpoan utzi ohi diren taldeei ez entzutea saihestuz.

Horiek horrela, DINAMIZAZIOAk zuzeneko lotura du ordezkotutako hautabideak —esaterako, sarreran aipatutako *ikuspegi dialogiko eraldatzailea* (EDT)— bilatzearekin. Ildo beretik, oso interesgarriak dira Daniel Buraschik, Francisco Amoiraga Montesinosek eta Natalia Oldanok (2017) errespetuzko eta berdintasunezko guneak sustatzeari buruz egiten dituzten gomendioak, Marianella Sclaviren *El arte de la escucha-ko* (2003) arauak harturik oinarri. Hain zuzen, hitz egiteko eskubidetik entzuna izateko eskubidera igarotzeko, hausnarketa hauek gomendatzen dituzte:

1. Bertan egotea eta erresistentzia eta inposiziorik gabe entzutea.
2. Pentsamendu eta sentimenduen adierazpenari bide emango dion konfiantza giro bat sortzea.

3. Arreta gaitan jartzea, eta ez parte-hartzaile guztien artean barreiatzea.

4. Prozesuaren denbora errespetatzea, presarik gabe.

5. Ulertzea, galdetzea, eta beste begirada batzuetatik ikusi ahal izateko laguntza eskatzea.

6. Ideiak eztabaidatzen dira, ez pertsonak. Ezin da ahotsik utzi kanpoan.

7. Emozioak legitimatu egin behar dira, funtsezkoak baitira.

8. Mundu berriak ezagutzeko ziurgabetasuna besarkatu behar da.

Hasieratik amaieraraino bide-orri aproposa antola dezaketen zortzi ideia dira, ahots guztiak barne hartuko dituen giro bat sustatzeko, sormen handiagokoa eta erosoagoa, frustraziorik eta bertan behera uzterik ez egoteko eta esperientzia aberasteko.

IRADOKIZUNA

Parte hartzeko metodologiak eta teknikak erabiliko dituzten eragile dinamizatzaileak egotea gomendatzen da, espazio dialogikoak sortzen lagundu dezaten. Alderdi horretan, adierazi behar da talde dinamizatzailea partaidetza-esperientziaren beharretara egokitu beharko dela. Hau da, kanpoko talde baten alde egin daiteke apustu; baita barneko talde baten alde ere (teknikariak eta/edo herritarrek alde aurretik gaiturik); edo eredu misto baten alde.

Nola ebaluatzen dugu?

Erabaki-hartzea aztertzea: gehiengo bidezko sistema erabiltzen da edo erabakiak adostasunez hartzearen alde egiten da? Nola gauzatzen da?

Ikuspegi dialogiko eraldatzailearen aldeko apustua aztertzea: elkarriketako parte-hartzaileak gaitzen dira? Zer teknika erabiltzen dira? Biztanle guztiek erabiltzeko modukoak dira?

Dinamizatzaileen pertzepzioa: nola deskribatu dute partaidetza? Zer sentipen nabarmendu dituzte? Lidergo toxikorik hauteman dute? Nola tratatu dira? Horiek lausotzea lortu dute? Zer profil dute parte-hartzaileek? Ahotsak jaso dira?

Parte-hartzaileen pertzepzioa: nola deskribatu dute partaidetza? Zer sentipen nabarmendu dituzte? Aske hitz egiteko eroso sentitu dira? Beren iritzia entzun egin direla iruditua zaie? Uneren batean kalteturik sentitu dira? Nola hauteman duten adostasuna? Azken erabakian aintzat hartuak sentitzen dira?

INFORMAZIOA



Informazioa beharrezkoa da iritzia eratu ahal izateko, erabakiak hartzean esku hartzeko eta erdietsi nahi den gardentasun-maila lortzeko. Hain zuzen ere, partaidetza-esperientzia bat ezin da ulertu kalitateko informaziorik gabe. Hala ere, kalitatea ezin da alderdi kuantitatiboan soilik neurtu (sortutako dokumentu kopurua); herritar guztiei iritsi behar zaie eta haren aniztasuna ordezkatu behar du, ezaugarri sorta baten bitartez:

- **Eraginkortasuna:** herritarren artean irismen zabala eduki behar du, eta esperientziarekin lotutako interesei dagokionez erabilgarria izan.
- **Integrala:** partaidetza-jardunbide osoan zehar da funtsezkoa. Hasi bide-orritik eta jokoaren arauetatik, eta konpromisoak, tarteko baliabideak eta arian-arian bidean agertzen diren emaitzak ere barnean hartu arte.
- **Irisgarritasuna:** partaidetza gizarte horizontalagoa lortzeko pentsatu bada, informazioak biztanle guztientzat ulargarria izan behar du. Horretarako, herritarrek informazioa jasotzeko aurki ditzaketen oztopoak gainditzean pentsatu behar da. Oztopo ikusezinak dira: esate baterako, eten digitala, aniztasun funtzionala, hizkuntza, kultura-maila edo denborak.
 - **Eten digitala:** kontuan hartu behar da informazioa era askotako kanaletatik iritsi behar dela. Erakargarrietako bat, zalantzarik gabe, Internetek sare sozialen eta web-orrien inguruan ematen dituen aukerak dira. Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar ohiko beste kanalen osagarri izan behar dutela, biztanleriaren zati bat kanpoan gera ez dadin.
 - **Aniztasun funtzionala:** nolabaiteko desgaitasunen bat duten herritarrengana

iristeaz ari gara. Eta, horretarako, funtsezkoa da beste hizkuntza (zeinu-hizkuntza) edo idazketa-sistema (braille) batzuk erabiltzea, edo informazio osagarri laguntza: akustikoa (audioak) nahiz bisuala (seinaleak, zeinu-gidak, azpitituluak...). Era berean, hizkuntza errazetik abiatuta garatu behar dira dokumentuak eta desgaitasun kognitiboak dituzten pertsonen premietara egokitu behar dira.

- **Hizkuntza:** kontuan hartu behar da hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea, dagoen diglosia gainditzeko (euskara erabiltzea) edo hizkuntza ofizialak ezagutzen ez dituzten edo horiekin zailtasunak dituzten pertsonengana iristeko.

- **Kultura-maila eta gaiari buruzko ezagutza:** informazioak argia eta ulertteraza izan behar du, eta horretarako beharrezko baliabideez lagundu behar da (irudiak edo bideoak, adibidez). Horrek ez du esan nahi sinpletasunean erori behar denik eta kontzeptu edo gai konplexuak bazter utzi behar direnik; aitzitik, ariketa pedagogikoa egin behar da, eta denbora eman eta ahaleginak egin, biztanle guztiek ulertzeko moduan azaldu eta argitzeko.

- **Denborak:** herritarren partaidetzaren alde txarretako bat da sarri oso eskasak diren denborak eskatzen dituela. Herritar-jarduera familiarekin eta lagunekin, aisialdiarekin eta (askotan) amaiezinak diren lanaldiekin bateratzea nolabait gainditu beharreko zailtasun bat da. Horretarako, egindako urratsen berri ematea gomendatzen da, askotariko formatuak erabiliz eta herritarren erritmo eta denboretara egokitzen lagunduko duten askotariko plataformen bidez.

- **Inklusibotasuna:** partaidetzaren beste oinarri bat desparekotasunak gainditzeko da; horretarako, garrantzitsua da talde behartsuenak nabarmendu eta ikustera emango dituen diseinu bat aukeratzea. Horrekin esan nahi dugu generoari dagokionez hizkuntza inklusiboa erabiltzea, baina baita askotariko ahotsak jaso eta bereizkeria mota orotik aldenduko den informazio plurala aukeratzea ere.

Azken batean, berriz azpimarratuko dugu esperientziak diseinatzen eta bultzatzen dituzten eragileek *besteren oinetakoetan ibili* behar dutela, bidean ager daitezkeen informazio-premiei aurrea hartzeko eta, hala, bitartekorik eza dela-eta inor kanpoan ez geratzeko.

Nola ebaluatzen dugu?

Erabilitako kanalak aztertzea: zer kanal erabiltzen dira? Kanal tradizionalak erabiltzen dira, adibidez, kartelak, gutunak, posta elektronikoa, telefono-deiak edo kalean bertakoak? Teknologia berriak erabiltzen dira, adibidez, *smartphone* edo tabletetarako aplikazioak, mezu elektronikoak, web-orriak edo sare sozialak? Informazioa gehitzen eta osatzen dute? Eguneratzen dira? Eskuragarri daude?

Aurreproiektuaren edukia aztertzea: zer azaltzen digu informazioak? Xehea da? Erabilgarria da? Hizkera laua erabiltzen du? Sinpleegia da? Inklusiboa da? Irudiz laguntzen da? Irudiek bereizkerian erortzea eragozten dute? Desadostasunak jasotzen dira?

Formatua aztertzea: askotariko formatuak erabiltzen dira? Adibidez, audioak, irudiak, testuak eta bideoak? Behar eta oztopo guztietan pentsatzen da (adibidez, letra mota eta testuaren tamaina egokiak dira, brailleko bertsio bat dago, bideoek azpitituluak dituzte, eta abar)? Inklusiboak dira?

Parte-hartzaileen pertzepzioa: zer iritzi dute informazioari buruz? Eskuragarria eta inklusiboa da? Eraginkorra da edo ez da ongi iritsi?

Informazioaren bolumena: sortutako dokumentuen kopurua.



Kontuan hartu behar da gomendagarria dela partaidetza-esperientziak ezagutzera ematea. Ahaleginak egin behar dira ezagutzak eta emaitzak hainbat eremutan —akademikoa, politikoa, soziala eta mailatan —tokikoa, autonomia-erkidegokoa, estatukoa, nazioartekoa— partekatu, identifikatu, aztertu, erkatu eta are esportatzeko modukoak izan daitezen.

Batetik, herritarrek bere esperientzia publikoki ezagut dezatela adierazi nahi da horrekin, herritarren partaidetza-kultura politikoan sakontzeko, topaketa edo foroen bitartez. Baita kongresuetan aurkeztutako azterlanen edo hedabide, liburu nahiz aldizkari espezializatueta ateratako argitalpenen bitartez ere.

Bestalde, nabarmendu egin dadila erakundeen edo gizartearen alorretik datozen aitorten eta sarien bitartez, eta aipatu egin dadila beste eremu edo maila batzuetan egindako esperientzien oinarri izan delako. Alderdi hori proiektuaren diseinu edo garapenaz kanpoko aktore eta erakunde baten dago, baina oso interesgarria da halere.

Nola ebaluatzen dugu?

Ezagutza aztertzea (I): Jendaurreko aurkezpenak: zer foro edo topaketa sortu dira? Herritarrei zabalik daude? Zer onarpen dute?

Ezagutza aztertzea (II): Jendarteratzea: kongresuetara aurkeztu da? Hedabideetan artikulatuak argitaratu dira? Liburueta? Aldizkari espezializatueta? Zer-nolako irismena dute? Barnekoak edo kanpokoak dira?

Aitortza aztertzea (I): Sariak: hirugarren batzuen sariak ematen dira? Erakundeen edo gizartearen esparruko sariak dira? Barnekoak edo kanpokoak? Zer garrantzi dute herritar-mailan? Eta erakunde-mailan?

Aitortza aztertzea (II): Transferigarritasuna: beste partaidetza-esperientzia batzuen oinarri izan dira? Udalerri barruko esperientziak badira, zein alorretan? Kanpokoak badira, zer muga zeharkatu ditu?



ADARREKO ERREMINTAK

Prozesuaren garapenarekin
lotuta dauden erremintak dira,
eta partaidetza-fruituak errazago
irten daitezen baliatzen dira haien
ondorioak.

PARTAIDETZAREN IRISMENA LIDERGOA SAREAK

PARTAIDETZAREN IRISMENA



Esperientzia batean zer pertsona eta/edo elkarteak parte hartzen duen, horrek ere erabakitzen du esperientziaren kalitatea. Berriz ere, kopuruari buruz ari gara, baina ez soilik. Izan ere, Ebaluazio-gida honetan behin baino gehiagotan esan dugun bezala, partaidetza-kultura hasiberria da oraindik eta, beraz, itxaropen kuantitatibo handiak sailhestu behar dira politikarien, teknikarien eta herritarren artean (elkartekide izan nahiz ez) frustraziorik ez sortzeko.

Horregatik, tresna honetan, parte-hartzaile kopurua ez ezik, justizia sozialari dagozkion beste elementu batzuk ere hartu behar dira gogoan. Adibidez, elkarreentako kide ez diren herritarrek edo partaidetza-taldeetatik kanpo geratu ohi diren gizarte-taldeak mobilizatzen diren; harreman hautsiak edo deusezak dituzten taldeak elkartzeko guneak sustatzen diren; edo biztanleriaren zati bati partaidetza-kultura politikoari buruzko gaikuntza eman zaion.

IRADOKIZUNA

Kontuan izan behar da PARTAIDETZAREN IRISMENAK lotura hertsia duela IREKITZEKO GAITASUN deitutako horrekin. Hortaz, prozesuaren testuinguruaren eta irekitze-mailaren arabera ulertu behar da. Gainera, nabarmendu behar da funtsezkoa dela sustrai-erremintekin osatzea (adibidez, IRISGARRITASUNA edo INKLUSIBOTASUNA).

Nola ebaluatzen dugu?

Parte-hartzaileen kopurua aztertzea (I): kuantitatiboa: zenbatek parte hartu dute? Esperientziak ukitutako biztanleriaren zer ehunekok parte hartu du? Sektoreko eta/edo elkarreentako zenbat buruzagik parte hartu dute? Zenbat dira elkarreentako sareko kide? Zenbat ez?

Parte-hartzaileen kopurua aztertzea (II): bilakaera: zenbat parte-hartzaile ziren hasieran? Zenbat amaieran? Askok utzi badute bertan behera, zergatik?

Parte-hartzaileen kopurua aztertzea (III): kualitatiboa: eskuarki parte hartzen ez duten taldeak mobilizatu dira? Banako edo taldeko mailan? Elkarren etsai diren edo elkar ezagutzen ez duten banakoak eta/edo kolektiboak jarri al dira elkarriketan? Zein izan da emaitza?

Parte-hartzaileen kopurua aztertzea (IV): pertzepzioa: zer iritzi dute parte-hartzaileek bertaratzeari buruz?

LIDERGOAK



Lider esatean, ekiteko, eragiteko eta, hala, esperientzia finkatu diren helburuetara bideratzen laguntzeko gai diren pertsona edo giza taldeei buruz ari gara. Eta, horrenbestez, lankidetzaz, partaidetza, elkartasuna eta kideotasun-sentimendua sustatzeko; elkarriketarako eta gaikuntzarako eremuak sortzeko; adostasunak lortzeko eta/edo sareak indartzeko beharrezko gaitasunei egiten diegu erreferentzia.

LIDERGOAK oso garrantzitsuak dira edozein partaidetza-esperientzian. Hala ere, ihes egin behar diogu lidergo bakar eta lehiatsuaren ideari (batez ere, karismadunegiak edo despotikoegiak direnak), baita homogeneoegia denari ere. Guztiz kontrakoa da. Lidergo-eredu berriak errazteko eta harremanetan jartzeko ahalegina balioetsi behar da.

Hau da, lidergo horizontalak aldi berean existitzea eta elkarrekin jardutea sustatu behar da, eremu guztietatik gainera (politikoa, teknikoa, gizartea). Horrekin batera, gizartean dagoen aniztasuna eta, bereziki, ukitutako eta normalean ahaztutako taldeak ordezkatzeko dituzten talde lider sektorialeko eremuak behar dute osatuta.

Nola ebaluatzen dugu?

Lider taldeak aztertzea: nork hartzen du aurrea eremu politikoan? Eta teknikoan? Eta sozialean? Lantalde heterogeneoa da? Nor ordezkatzeko du? Kontuan hartzen ditu gizartean dauden askotariko ahotsak? Lidergo berriak sortu dira? Horretarako gaikuntza-mekanismoak txertatu dira?

Eragile liderren pertzepzioa: nola hautematen dute euren lidergoa? Eta gainerako taldeena? Beren burua adierazi ahal izan dutela sentitzen dute? Haien ahotsak entzun direla? Nola deskribatuko lukete sortu den giroa?

Parte-hartzaileen pertzepzioa: hola hauteman dira lidergoak? Adierazgarritzat hartzen dira? Haien ahotsak kontuan hartu direla sentitzen dute?

SAREAK



Herritarren partaidetza erlazionala da izatez. Horregatik, hain zuzen ere, edozein esperientzian funtsezko helburu bat da bertan parte hartzen duten eragileen artean konexioak sortu eta/edo indartzea.

Alderdi horretan, hasieratik hartu behar da kontuan SAREAK erreminta. Nolanahi ere den, komeni da azpimarratzea indar berezia hartzen duela *garapenaren unetik* aurrera. Izan ere, hirugarren etapa horretan ehuntzen dira sinergiak, apurka-apurka, formulazioaren eta partaidetzaren diseinuaren ondoren.

Testu honetan adierazi dugun bezala, kontuan hartu behar da edozein esperientzian lau eragile mota nagusik esku har dezaketela: a) politikariak, b) teknikariak, c) gizarte-ehunak, eta d) elkarteak kide ez diren herritarrek. Tresna honek eragile horien arteko lankidetzaren sorreran eta/edo indartzean eragin nahi du.

Nola ebaluatzen dugu?

Sareak mapatzea: deskribapena eta analisia: zer sare sortzen dira? Zein hausten? Zein indartzen? Zein ahultzen? Mugimendu horien artean erlaziorik dago? Nor eratzen da sare horien barruan? Nor harremanetatik kanpo? Sareotan kanpoan utzi ohi diren gizarte-taldeak sartu dira?

Parte-hartzaileen pertzepzio subjektiboa: Zer mugimendu hauteman dituzu? Zer intentsitatekin? Zer egin daiteke harremanak hobetzeko?

IRADOKIZUNA

Ebaluatzeko, komeni da aurrez mapatzea udalerriko harremanak eta gizarte-ehuna, zer bilakaera duten eta, ahal den neurrian, esperientziak zer eragin duen aztertu ahal izateko. Aipatu behar da zaila dela mapatzean antolatu gabeko herritarrak barnean hartzea, baina ekintza jakin batzuk egin daitezke, adibidez, prozesutik abiatuta edo parte-hartzaileen pertzepzio subjektiboaren bitartez jende gehiago elkarkidetu den jakiteko.

Gainera, gogoan izan behar da zein garrantzitsua den DINAMIZAZIOA erreminta elkarriketa-gune inklusiboak sustatzeko eta eragileen artean liskarrak sortu edo areagotzeko.



FRUITU-ERREMINTAK

Edozein esperientzian espero daitezkeen gehienezkoei dagozkien tresnak dira, egiturazko alderdiak aldatzea ekartzen baitu, gure gizartean sustraituta daudenak, justizia sozialerako bidea hartzeko. Gainerako erreminten fruitu gisa har ditzakegu, eta, beraz, etorkizuneko hazi ere bai.

HERRITARREN AUTONOMIA KOGESTIO INSTITUZIONALIZATUA KONPROMISO LOTESLEA KULTURA POLITIKOA AHALDUNTZEA

HERRITARREN AUTONOMIA



Herritarren partaidetzaren funtsezko helburuetako bat, hain justu ere, herritarrak erabakiak hartzeko gaitzea da. Horretarako, funtsezko hiru eragileek – politikariak, teknikariak eta herritarrak (elkartekide izan nahiz ez)– harreman ahalik eta autonomoena eta horizontalena izan dezaten sakondu behar da. Betiere arreta berezia jarririk politikari eta teknikarien, teknikari eta herritarren eta politikari eta herritarren arteko harreman hierarkikoetan erortzeko arriskuari.

Hortaz, partaidetza-esperientzia bakoitzean ezin dugu ahaztu erreminta hori, apala izateagatik ere. Hau da, eragileen arteko elkar harremanaren alde egin behar da apustu, baina bakoitzaren independentzia errespetatu behar da, mutur-sartzerik edo tutoretzarik gabe eta gizarte-ehuna beste eragile burokratizatu batean bihur dadila saihestuz. Horren baitan, eragina onuragarria, ahalduztzailea eta mobilizatzailea edo, aldiz, kaltegarria, frustragarria eta desmobilizatzailea izango da, eta gerta daiteke etorkizuneko mendekotasunak edo liskarrak sortzea.

IRADOKIZUNA

HERRITARREN AUTONOMIA lantzeko, talde eragile mistoa abiaraztea da partaidetza-egitura ohikoenetako bat. Topaketarako eta elkarlanerako eremu boluntario horrek herritarren, teknikarien eta politikarien arteko elkarriketari ematen dio bide, Udalarekin batera partaidetzazko ekimenak landu ditzaten. Oso interesgarria da; izan ere, esperientzia martxan jartzeaz, mobilizatzeaz eta/edo hari jarraipena egiteaz arduratzen den aurrerapena da.

Nola ebaluatzen dugu?

Eragileek esperientzian elkarrekin izandako harremanak aztertzea: zer eginkizun du bakoitzak? Nola erlazionatzen dira? Mendekotasunen edo tutoretzen pean erortzen dira? Elkar topatzeko guneak daude?

Talde eragilea eta jarraipen-mekanismoa aztertzea: nork osatzen du? Zer egitura du? Eta nola funtzionatzen du? Zer neurri hartzen dira? Esperientziaren jarraipena egiteko batzorderik dago? Nork osatzen du? Nola egiten dute lan?

Esku hartzen duten pertsonen pertzepzioa: nola sentitzen dira teknikariak? Eta herritarrak? Nola sumatzen dituzte lau eragileen arteko harremanak? Independentzia dutela sentitzen dute edo hierarkiak mugatuta sentitzen dira?

KOGESTIO INSTITUZIONALIZATUA



KOGESTIO INSTITUZIONALIZATUAK politikariek, teknikariek eta herritarrek (elkartekide direnak eta ez direnak) erabakiak hartzeko prozesuan, esperientziaren kudeaketan bertan eta lortzen diren emaitzen ezarpenean elkarrekin parte hartzeari egiten dio erreferentzia.

Adierazi daiteke erreminta honek lotura handia duela aurrekoarekin eta antzeko arrisku eta potentzialtasunak dituela; beraz, beti errespetatu behar da eragile guztien autonomia. Gainera, partaidetza-eredu malgua eskatzen du, eta eragileen arteko konfiantza, konpromiso eta elkarlan harremanetan oinarritutako partaidetza-kultura politiko handia izan behar da. Gaur egun, espazio jakin batzuetan aurki daitezke kogestio-ereduak: adibidez, zentro soziokulturaletan eta emakumeen edo gazteen etxeetan.

Nola ebaluatzen dugu?

Erabaki-hartzea eta kudeaketak aztertzea: nork hartzen ditu erabakiak? Zer metodo erabiltzen dira? Nork ezartzen ditu? Nork kudeatzen ditu baliabideak? Nork programatzen ditu jarduerak? Independentzia dago?

Parte-hartzaileen pertzepzioa kudeaketari buruz: nola sumatzen dituzte eragile arteko harremanak? Horizontalak edo hierarkikoak dira? Iritzi guztiak hartzen dira aintzat? Konfiantza dago? Eta independentzia?

Parte-hartzaileen pertzepzioa beren eginkizunari buruz: nola sentitzen dira? Kudeaketa ona edo txarra izan dela uste dute? Burokratizatze edo independentzia galtzeko arriskurik ikusten dute?



KONPROMISO LOTESLEA



KONPROMISO LOTESLEAK esan nahi du partaidetza-esperientzian hartzen diren ebazpenak betetzeko erabakia hartu duela Udalak. Hau da, tarteko eragileek erabakiak hartzean zuzeneko eragina izatea dakar berekin.

Erreminta honek indar handia izan dezake; izan ere, konfiantzazko harremanak sorraraz ditzake Administrazioaren eta herritarren artean eta, horrenbestez, partaidetza sustatzeko balio dezake. Hala ere, gaizki erabiltzen bada oso ondorio kaltegarria izan dezake, eta kontrako efektua eragin (mesfidantza eta desmobilizazioa).

Horregatik, erreminta honen alde egitea beharrezkoa den neurtu behar da, funtsezkoa baita zenbait kasutan (adibidez, partaidetzako aurrekontuetan), baina ez esperientzia guztietan. Nolanahi ere den, hasieratik argi eta garbi utzi behar dira jokoaren arauak beti. Alegia, erreminta hori erabiliko den zehaztu behar da, eta, erabiltzen bada, besteak beste honako hauek mugatu beharko dira: zein erabaki diren lotesleak, zenbateraino, zer gairi buruzkoak izango diren eta nork parte ahal izango du erabakiak hartzean. Arau horiek partaidetuak izan daitezke ala ez, baina betiere amaieraraino eutsi behar zaio adostutako konpromisoari.

Nola ebaluatzen dugu?

Kontratu-agiria aztertzea: jokoaren arauen konpromiso esplizitua dago? Zenbateraino txertatzen dira herritarrek hartutako erabakiak? Indarrean diren araudiekin bat datoz?

Emaitzak aztertzea: prozesuan zehar hartutako erabakiak bete dira?

Parte-hartzaileen pertzepzioa: nola hautematen dute erabakiak hartzeko prozesua? Esperientzian zehar gehiegi behatu zaiela sentitu dute?



IRADOKIZUNA

Ez dira ahaztu behar, ezta ere, indarrean diren arau-esparruek ezartzen dituzten mugak. Horregatik, KONPROMISO LOTESLEA hartu aurretik, argi eduki behar dira lurralde-maila bakoitzean dauden erregulazioak.

KULTURA POLITIKOA



Edozein esperientzian nahitaezkoa da partaidetza bidezko KULTURA POLITIKO demokratikoa sustatzea ere. Alderdi horretan, partaidetza-esperientzia orotan kontuan hartu behar da zer jarrera, ezagutza eta sentimendu dituzten herritarrek beren sistema politikoari eta, kasu honetan, tokiko sistemari buruz. Eta, hortik abiatuta, konfiantza- eta elkarrikeraren giroa eta herritar aktiboak, erantzunkideak eta parte-hartzaileak sustatu behar dira, zein erakundearen alboa, zein bere kabuz.

Laburbilduz, edozein partaidetza-esperientzian, berdin dio zein xumea den, partaidetza bidezko kultura politikorantz urratsak egitea bilatu behar da.

Nola ebaluatzen dugu?

Partaidetzaren aldeko adostasuna: talde politikoen artean konpromiso kolektiborik al dago herritarren partaidetza sustatzeko beharrari eta partaidetza-esperientzietan hartutako erabakiak errespetatzeari buruz? Eta teknikarien artean?

Parte-hartzaileen pertzepzioa: nola sentitzen dira parte hartzen duten pertsonak? Errealizatuta sentitu al dira? Frustraturik? Herritarren partaidetzari dagokionez gaituak? Konfiantza al dute erakundeengan? Berriz parte hartuko al dute?

AHALDUNTZEA



AHALDUNTZEA azken urteotan goraldian izan den kontzeptu bat da, eta askotan ideologia kontserbadore eta neoliberalen bitartez iragazita iritsi zaigu. Dena dela, aldarrikatu egin nahi dugu termino hori, komunitatearen garapenarekin eta feminismoarekin hain lotura handia duena, botere-harremanei buruzko ikuspegi eraldatzaileenetik. Izan ere, egoera ahulean/zapalduta dauden banakoek eta taldeek pertsonalki eta sozialki gaitasunak, estrategiak eta hitza bereganatzea edo indartzea da erreminta honen ardatza.

Illo horretan, María de la Fuente (2013:199) ahaldundzeari (emakumeak nahiz egoera ahulean dauden beste talde batzuk) eman dion definizioarekin egiten dugu bat. Hau da, «autokonfiantza eta barne-indarra handitzeko, hitza bereganatzeko, nor bere egunerokoaren gainean nolabaiteko kontrol-maila lortzeko, norberaren kokalekua erabakitzen duten faktoreak identifikatzeko eta, banaka nahiz taldean, haiei desafio egiteko gaitasuna» baliatzen dituen prozesua.

Bestela esanda, botereari buruzko betiko ikusmoldea (aginpideari eta nagusitasunari lotutakoa) gainditzeko duen botere-idea erlazionalagoa mobilizatzen du ahaldundzeak. Horiek horrela, erreminta honek zerikusia du partaidetza-esperientziak pertsonen emantzipazioa eta eraldatzeko asmozko sareen sorrera sustatzeko duen gaitasunarekin. Hau da, testuaren hasieran aipatzen genuen esparruaren erdigunera itzulita, **tokiko giza garapenarekin** eta zainketen logikarekin lotzen da. Eta, horren bidez, nork bere burua aintzat hartzeko, antolatzeko eta erantzunkide izateko trebetasunak indartu nahi ditu.

Nola ebaluatzen dugu?


Parte-hartzaileen pertzepzioa:

Norbanakoaren alderdia: beren autoestimua eta konfiantza handitu dira? Gizarte-trebetasunak garatu dituzte? Ahaldunduta sentitzen dira?

Harremanen alderdia: sareak indartu dira? Ingurunean eragina handitu dela sumatzen da? Gizarte-talde ahulenei beren baliabideak areagotu dituzte (presentzia, denbora eta eragina)?

Taldearen alderdia: partaidetza-esperientzian botere-banaketarik egin da? Apurka-apurka gizarte-talde kalteberenen partaidetza handitu da? Eragin hori gizartera hedatu da, oro har?

— ERREKURTSO-
SASKIA





TEKNIKAK ADIERAZLEAK EBALUATZEKO TXANTILOIA

EBALUAZIO-GIDAn zehar zenbait galdera formulatu ditugu, arian-arian, **esperientziaren** kalitateari buruzko informazioa lortzeko. Galdera horien ondorioz, partaidetza-jardunbidearen hainbat alderdiri buruz egin dugu gogoeta: dokumentuak aztertzetik gizarte-ehunera, zifretatik pertzepzio pertsonaletara.

Adierazi dugun bezala, ebaluazio hau ez da esperientziaren amaieran soilik egitekoa: jarraitua izan behar du. Izan ere, partaidetza prozesutzat ulertuz gero, zer potentzialitate indartu behar diren eta zer okerbide eta akats zuzendu behar diren jakin daiteke. Hala ere, esperientzia ulertzeko modu hori erronka bat da, hasieratik egin behar direlako beharrezko informazioa biltzeko ahaleginak, ezinbestean.

Eta ildo horretan, gogorarazi behar dugu ahalegin horrek ez duela erreproduzitu behar emakumeen eta kalteberatasun-egoeran dauden beste talde batzuen ikusezintasuna. Beraz, datuak generoaren eta beste identitate-**ardatz** batzuen arabera bereizi behar dira, gizartearen konplexutasuna eta aniztasuna ulertarazi eta desberdinkerien gain jarduteko aukera eman dezaten.

Horretarako guztirako, informazioa biltzen, sistematizatzen eta aztertzen lagunduko diguten baliabideak eduki behar dira. Jarraian, saski txiki batean jasoko ditugu teknika ohikoenak eta esperientziak ebaluatzean erabil ditzakegun adierazleen adibide batzuk. Hala ere, ez da ahaztu behar *ogi-apurrak* besterik ez direla; izan ere, egokitzapena eta sormena beti izan behar dira esperientziaren parte.

Bestalde, gogoan izan behar da saskia barneko nahiz kanpoko lantalde teknikoek erabil dezaketela, halaber. Beste gidaliburu batzuen ildo beretik, gure ustez, bi ebaluazioak uztartzea da estrategia onena, unean uneko testuinguruan eta premietan pentsaturik.

Azkenik, saski hau aipamen labur bat besterik ez dela esan behar da. Inork gai honetan sakondu nahi badu, EBALUAZIO-GIDA honetako GEHIAGO JAKITEKO atalean aurkituko ditu zenbait erreferentzia.

TEKNIKAK

DATU ESTATISTIKOAK

Datu estatistiko eta dokumentalak biltzea funtsezkoa da informazioa lortzeko bigarren mailako iturri gisa. **Aurrez egin diren azterlanetara, datu-baseetara** eta bestelako kanpo-informazioetara jotzeak gure ebaluazioa aberastuko du, bai esperientzia egin bitartean, bai eta ondoren ere, konparazioa egiteko aukera emango digunez.

Beste batzuetan, beharrezkoa izan daiteke geure informazio kuantitatiboa sortzea. Ohiko baliabide bat **galdetegiak** egitea da, partaidetza-esperientzia batean ebaluatu nahi ditugun alderdi guztien balorazio pertsonala egiteko. Zer datu interesatzen zaizkigun eta, testuinguruaren arabera, zer azpimarratu nahi dugun, irizpide jakin batzuk lehenetsiko ditugu. *Inkesta* horretan, alderdi kuantitatiboez gain, kualitatiboak ere jaso daitezke; hau da, pertzepzio edo sentimenduetan ardaztuagoak. Gainera, banakakoa izan arren, beste edozein talde-teknikaren osagarri ere izan daiteke.

Illo horri dagokionez, adierazi den bezala, generoaren eta beste identitate-**ardatz** batzuen arabera bereizitako informazioa eduki behar da. Funtsezkoa da, orobat, arreta berezia jartzea kontzeptuen definizioei eta gogoan hartzea bereizkeria-molde guztiak kontuan hartuko dituzten adierazle edo indizeak prestatzeko aukera.

DOKUMENTAZIOA AZTERTZEA

Partaidetza-esperientzia baten inguruan sortzen den dokumentazioa aztertzea oso informazio-iturri baliagarria izan daiteke gure zuhaitzeko erremintetako batzuk aztertzeko. Aktek, txostenek edo aurretiazko hitzarmenek zer esaten diguten begiratuta, jokaleku politiko, tekniko eta soziala, harremanak, presentziak eta ahotsak, eta adostasun eta desadostasunak uler ditzakegu. Gainera, gai jakin batzuei buruzko isilunez eta talde batzuen absentiak jabetzeko aukera ematen digute orobat, eta hori ere informazio baliotsua da.

Testuei *hitz eginarazteko*, bi teknika erabili ohi dira: **Edukiaren azterketa** eta **Diskurtsoaren analisi kritikoa**. Erraz esanda, lehenengoak dokumentuen esanahia eta testuingurua ezagutzen laguntzen du; bigarrenak, aldiz, hizkuntzaren erabileran bertan dauden botere-harremanak identifikatzen.

SAREEN AZTERKETA

Herritarren partaidetzaren ardatzean pertsonen arteko harremanak daude. Beraz, garrantzitsua da eragilean arteko aliantzen eta gatazken gaineko ikuspegi orokorra izatea, eta haien elkarreraginaren dentsitateari, potentzialtasunei eta egon litezkeen tentsio eta mesfidantzei behatzea.

Harreman motei buruzko informazioa lortzeko, betiere interesgarria da aurretiazko **diagnostiko** bat izatea (ez dugu beti izaten, ordea), aukera ematen digulako ondoren harreman horietan eboluziorik izan den alderatzeko eta, horrela, batzuk indartu diren eta hondatutako beste batzuk ahuldu diren jakiteko.

Alderdi horretan, soziograma da gehien erabilitako tekniketako bat; hots, lurralde batean dauden eragilean arteko harremanen adierazpen grafiko bat, oraingoan, hizpide dugun partaidetza-politika harturik ardatz.

BALORAZIOAK

Sentimenduak eta pertzepzioak funtsezkoak dira herritarren partaidetzan; izan ere, erabakigarriak izan daitezke esperientzia batek arrakasta izateko. Pertsonen arteko harremanak, afektuak eta desafektuak, eta konfiantza eta ongizate sentsazioak edo, kontrara, frustrazioak eta mesfidantzak, oso garrantzitsuak dira partaidetza-ekintzan esku hartzeko garaian.

Galdetegiak gain, **elkarriketa sakona** da halako informazioa banan-banan lortzeko gehien erabiltzen den teknika, kasu honetan kualitatiboa. Hau da, esperientzia batean funtsezkotzat hartzen den pertsona multzo batekin hitz egitea, euren bizipenei eta pertzepzioei buruzko lekukotzak jasotzeko. Adierazi behar da, gainera, badaudela beste tresna batzuk, antzekoak izan arren batez ere ibilbide pertsonalari begiratzen diotenak: kasurako, **bizitza-historiak** eta **narrazio-teknikak**.

Bestalde, taldeko partaidetza-ebaluazioa egin nahi badugu, **tailerrak** jar ditzakegu martxan. Hau da, gune batzuk antolatu, gidaliburuan zehar «... (r)en balorazioa» goiburuen pean planteatu ditugun gai batzuen gainean hausnartzeko, taldeka. Era askotakoak izan daitezke tailerrak; mota guztietan sartu gabe, ebaluatzeaz gain, hainbat pertsonen artean sareak indartzen eta etorkizunean lantzen jarraitu beharreko elementuak identifikatzen laguntzen du teknika horrek.

Illo horretan, oso interesgarria iruditzen zaigu udalerriko partaidetza **taldean ebaluatzeko eremuak sortzeak** eman dezakeen aukera nabarmentzea. Askotariko esperientzia eta prozesuak elkarriketara ekartzea lagungarria izan daiteke, udalerriko partaidetza-sistema ikasteko ez ezik, ariketa terapeutiko gisa ere, Udaleko partaidetza-jardueraren inguruko tentsioak, frustrazioak eta, jakina, ilusioak kanporatu eta partekatzeko.

Teknika eta metodologiei dagokienez, mundu oso bat dago. Ezagunenen gaineko ibilbide txiki bat besterik ez dugu ekarri nahi izan, eta justizia sozialaren esparrutik lantzeko ezinbestekoak iruditzen zaizkigun gai batzuk aipatu. “Gehiago jakiteko” goiburupean jaso ditugu erreferentzia bibliografikoak eta, berriz ere, gonbit horren barnean hartutako Metodologia atalera igortzen zaituztegu.

Hemendik aurrera, adierazleei buruzko iradokizun batzuk jaso ditugu, baliagarriak izan daitezkeelakoan. Esperientzia bakoitzean taldean lan egin beharko litzateke ondoren, kasuan-kasuan garrantzitsuak izan daitezkeenak aukeratzeko, dauden premien arabera horietako zenbait birformulatzeko eta ingurune berezi horretara egokitzeko beste batzuk egiteko.

ADIERAZLEAK

LURREKO ADIERAZLEAK



_ IRISGARritasuna

Planteamendua:

- Oztopo fisikoak gainditzeko egokitutako eremurik dagoen.
- Oztopo kognitiboak gainditzeko egokitutako lagungarriak dagoen, adibidez: a) zeinu-hizkuntza erabiltzea; b) entzuteko laguntza itsuentzat edo ikusmen-urritasuna dutenentzat; c) hizkuntza errazean dauden dokumentu eta materialak erabiltzea (ikusi INFORMAZIOA atala); d) irakurketa errazteko irudiak eta laguntza-materialak erabiltzea (ikusi INFORMAZIOA atala), edo parte-hartzaileek behar izan dezaketen beste edozein neurri.

Garapena:

- Informazioa banatzeko hainbat formatutara egokitu den (fisikoak/digitalak) (ikusi INFORMAZIOA).
- Teknologia berriak erabiltzen laguntzeko eta/edo irakasteko langilerik dagoen (ikusi GAIKUNTZA eta DINAMIZAZIOA).

Pertzepzioa:

- Parte-hartzaileen gogobetetze-maila, eragile motaren arabera, oztopoak kentzeari dagokionez.

_ GAIKUNTZA

Planteamendua:

- Esku hartu duten eragileei herritarren partaidetzari buruzko prestakuntzarik eman zaien.
- Ikastaroetan gainerako *Lurreko erremintak* agertu diren.
- Esku hartu duten eragileek esperientzian jorratu den gaiari buruzko prestakuntzarik duten.
- Lidergo horizontalei buruzko prestakuntzarik eman den (ikusi LIDERGOAK).
- Prestakuntzan elementu berritzaileak txertatu den (ikusi SORMENA).

Garapena:

- Ikastaroetako parte-hartzaile kopurua, eragile motaren arabera.
- Talde kalteberetako parte-hartzaileen ehunekoa (ikusi INKLUSIOA).

Pertzepzioa:

- Parte-hartzaileen gogobetetze-maila gaikuntzaren edukiei dagokienez.
- Konfiantza-maila parte hartzeko garaian.
- Parte-hartzaileen gogobetetze-maila gaikuntzaren edukiei dagokienez.
- Parte-hartzaileen gogobetetze-maila parte hartzeko trebetasunei dagokienez (entzute aktiboa eta jendaurrean hitz egitea).
- Dinamizatzaileen gogobetetze-maila parte-hartzaileen gaikuntzaren bilakaerari dagokienez.

_ SORMENA

Planteamendua:

- Proposatzeko gaitasunaren inguruan elementu berritzaileak egon den.
- Ukitutako gizarte-taldeen inguruan elementu berritzaileak egon den, bereziki talde kalteberak harturik kontuan (ikusi INKLUSIOA).
- Erabilitako dinamiketan elementu berritzaileak egon den, bereziki, irisgarritasuna eta elkarriketa harturik kontuan (ikusi IRISGARritasuna, GAIKUNTZA, DINAMIZAZIOA).
- Baliabideen mobilizazioaren inguruan elementu berritzaileak egon den.
- Helburuen inguruan elementu berritzaileak egon den.
- Esperientzian jorratuko den gaian elementu berritzaileak egon den.
- Beste alderdi interesgarri batzuetan elementu berritzaileak egon den.
- *Lurreko erremintak* indartzen lagundu duen elementu berritzaileak egon den.

Garapena:

- Esperientziaren berrikuntza-maila gaiari dagokionez.
- Esperientziaren berrikuntza-maila lurralde-mailari dagokionez.
- Beste esperientzia batzuk udalerriko idiosinkrasiara egokitu diren.

Pertzepzioa:

- Esku hartu duten eragileen pertzepzio-maila elementu berritzaileei dagokienez.

- Esku hartu duten eragileen gogobetetze-maila elementu berritzaileei dagokienez (politikariak, teknikariak, herritar elkartekideak eta elkartekide ez direnak).
- Sarien banaketa (ikusi EZAGUTZA ETA AITORTZA).
- Ildo horretan ikerketarik egin den (ikusi EZAGUTZA ETA AITORTZA).

_ INKLUSIOA

Planteamendua:

- Askotariko ordutegiak dauden.
- Askotariko kokalekuak dauden.
- Zainketa-zerbitzurik dagoen.
- Pertsona berriak sartzeko ongietorri-protokolorik dagoen.
- Esperientziaren agendan talde kalteberei buruzko gairik sartu den.

Garapena:

- Presentziaren banaketaren adierazlea, generoaren eta beste kalteberatasun-ardatz batzuen arabera (% prozesuaren uneen konparazioan).
- Ahotsaren banaketaren adierazlea, generoaren eta beste kalteberatasun-ardatz batzuen arabera (% prozesuaren uneen konparazioan).
- Presentziaren aniztasunaren adierazlea, generoaren eta beste kalteberatasun-ardatz batzuen arabera (ikusi INKLUSIOA).
- Elkarleen eta gizarte-taldeen ordezkarien presentzia, kalteberatasun-ardatzaren arabera.
- Talde eragilearen / jarraipen-batzordearen banaketaren indizea, kalteberatasun-ardatzaren arabera.

ADIERAZLEAK

- Esperientzia diseinatzeko teknika-ri-
aniztasunaren indizea, kalteberatasun-ardatzen
arabera.

Pertzepzioa:

- Parte-hartzaileak zein eroso sentitzen diren
eremu horretan.
- Parte-hartzaileek espazio horretan eragina
dutela sumatzen duten.
- Parte-hartzaileek taldea heterogeneoa dela
sumatzen duten.

_ GARDENTASUNA

Planteamendua:

- *Unetan* esperientzia kontrolatzeko tresnari-
eta/edo espaziorik dagoen.
- Jarduketak kontrolatzeko aurrez zehaztutako
irizpiderik dagoen.
- Esperientzian egiten diren jarduketan jarraipena
egoteko kronogramarik dagoen (ikusi
BALIABIDEEN PLANGINTZA).

Garapena:

- Esperientzia gizarteratzeko sortutako
dokumentuen kopurua.
- Sortu diren dokumentuetan *Lurreko erremintak*
ageri diren.
- Sortutako informazioa jendarteratzeko kanal
kopurua eta motak (ikusi INFORMAZIOA).
- Tresna eta/edo espazio horietan parte hartzen
duten eragile motak.
- Parte-hartzaileen ehunekoa, kalteberatasun-
taldeen arabera (ikusi INKLUSIOA).
- Kontrola egiteko eta kontuak emateko saioen
maiztasuna.

Pertzepzioa:

- Gardentasun-pertzepzioaren zenbaterainokoa
